



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko apirilaren 28a

39. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak ([2. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2006ko martxoaren 20ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru Komunitatean azken urteotan izan dugun esperientziak agerian utzi du defizita dagoela kontsumitzaile eta erabiltzaileen babes eta defentsaren arloan. Defizit hori, neurri handi batean, premia bati zor zaio; hain zuzen ere, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen babes maila handia izan dadin Nafarroako administrazio publikoei tresna egoki bat emanen dien arau bat onesteko premiari, egungo gizartearen beharrian berriek sortu duten esparruaren baitan.

Nafarroako Gobernuak aurkeztu duen foru lege proiektua ez da kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen babes-eskakizun handiaren neurrikoa. Gabezia handiak ditu beste legedia batzuetan kontsumitzaile eta erabiltzaileei ematen zaien babesarekin eta babes hori azken bururaino eraman ahal izateko legedia horietan ezartzen diren bide eraginkorrekin alderatuta.

Foru lege proiektuan ez da behar beste zehazten zehapen prozeduraren araubidea. Zenbait arlotan ez da babes maila egokietara iristen; ez ditu argiro arautzen kontsumitzaile eta erabiltzaile-

ek hainbat jarduketa eremutan dituzten eskubide guztiak.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen ustez, foru administrazioak kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen babesaren bermatzaile nagusia izan behar du, eta eskubide horiek, nazioaz gaindikoak direnez, zabaldu egin beharra dago, egungo merkatuaren agertoki eta egoerari egokitze aldera. Nafarroako kontsumitzaile eta erabiltzaileek estatuko legearen aurreproiektuan aitortu eta bermatzen den babes maila berbera izan behar dute.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko osoko zuzenketa aurkeztu du, ordezkotestua eta guzti.

ORDEZKO TESTUA

Kontsumitzailearen estatutuari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa eta defentsa, Espainiako Konstituzioaren 51. artikulua ezartzen duenez, politika sozial eta ekonomikoren printzipio gidarietako bat da.

Botere publikoei dagokie bermatzea konstituzio-printzipio hori betetzen dela, zeinak berarekin baitakar ezarriko direla neurri eta prozedura eragingarriak kontsumitzaile eta erabiltzaile guztiei bermatzeko haien osasunaren babes eta defentsa, egiazko informazioa, hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko eskubidea, erakunde bitartez ordezkotuta egon eta kontsulta egiteko eskubidea, bai eta haien bidezko interes ekonomiko eta sozialak ere.

Europar Batasuneko erakundeak, Batasuneko jatorrizko zuzenbidea oinarri, hori guztia arautzen

ari dira, kasuan kasuko tresnak baliatuta, eta onartua dute kontsumitzaile eta erabiltzaileen arloko politika funtsezko eta lehentasunezko osagaia dela Europar Batasuneko herritar guztien bizi kalitatea hobetzeko.

Halatan, lege hau taxutzerakoan beharrezkoa da kontuan izatea kontsumitzaile eta erabiltzaileei buruzko zuzenbideak nazioaz gaindiko izaera duela eta badela Batasuneko araudi bat –ondasunen eta zerbitzuen merkatu globalizatu batean garatu behar dena–, kalitate parametro batzuk errespetatu behar direla eta merkataritza eredu berriek gero eta presentzia handiagoa dutela, teknologia berrien eta informazioaren gizartearen zerbitzuen erabileraren ondorioz.

Batasuneko arauen artean ondokoak nabarmendu behar dira: produktuen segurtasun orokorra; produktu akastunen gaineko erantzukizuna; ordainketa sistemak; finantza zerbitzuen urrutiko merkaturatzea; pentsioak, aseguruak eta inbertsioak; etxez etxeko salmenta; higiezinak denbora partekatuko araubidean erabiltzea; bidaia konbinatuak; erantzukizun-amaierako ekintzak; administrazio-lankidetzak; zerbitzuen segurtasuna eta zerbitzu-emaileen erantzukizuna; merkataritza elektronikoa; interes orokorreko zerbitzuak; merkataritza-jardunbide bidegabeak; publizitate konparaziozko eta iruzurrezkoa; prezioak adieraztea; kontratuetako abusuzko klausulak; kontsumoko ondasunen salmenta eta bermea, eta urrutiko salmenta.

Foru Komunitatean azken urteotan izan dugun esperientziak agerian utzi du defizita dagoela kontsumitzaile eta erabiltzaileen babes eta defentsaren arloan. Defizit hori, neurri handi batean, premia bati zor zaio; hain zuzen ere, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen babes maila handia izan dadin Nafarroako administrazio publikoei tresna egoki bat emanen dien arau bat onesteko premiari, egungo gizartearen beharrian berriek sortu duten esparruaren baitan.

Konstituzioak agintzen du legez arautu behar dela kontsumitzaileen babesa, legedia zibilar eta merkataritza-legediari buruzko estatuaren eskumenak errespetatuta eta autonomia nahiz toki administrazioen eskumenak eta jarduketak sistematikoki uztartuta.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako eskumen

osoa esleitzen dio Foru Komunitateari, prezioen gaineko politika eta lehiaren defentsarako legedia ezertan ere ukatu gabe eta jarduera ekonomiko orokorraren oinarri eta antolamenduarekin bat eta monetaren arloan estatuak duen politikarekin bat.

Foru lege honek arautzen duen kontsumitzaileen estatutu berriak, Nafarroako Foru Komunitatean berria izaki, munta eta asmo handiko legedia dakar kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak aitortu eta babesteari begira.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen ondoko oinarriko eskubideak aitortzen ditu: haien osasuna eta segurtasuna babesteko eskubidea, haien interes ekonomikoak babesteko eskubidea, babes juridiko, administratibo eta teknikorako eskubidea, informazioa, hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko eskubidea eta ordezkaturia nahiz entzuna izateko eskubidea eta parte hartzeko eskubidea. Kontsumitzaileen estatutu berriak nabarmen hobetzen du kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa.

Halere, legez garatu beharko dira horren gertuko edo horri lotutako beste arlo batzuk ere, eskubide horietako bakoitzaren definizioan eragiteko.

Kontsumitzaileen estatutuak ezartzen dituen administrazio publikoen zaintza, kontrol eta ikuskatze jarduketak dira alderdirik garrantzitsuenetako bat, eskubideen bermatzaile diren aldetik; batetik, arrisku egoerei aurrea hartzeko eta, bestetik, zehapen prozedurari soilik begira daudelako, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubidea urratzen duten jarduketetan atzera-eragiteko zeregina duten aldetik.

Legeko kapitulu oso bat dagokio zehapen araubideari; Foru Komunitateko administrazio publikoei esleitzen die zehatzeko eskumena, Konstituzioak ezartzen duen tipikotasunaren printzipioa eragingarria izan dadin, bai arau-hausteen bai zehapenen arloan, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak babesterakoan.

Formazko kontuei dagokienez, kontsumitzaile terminoa erabiltzearen aldeko hautua egin da kontsumitzaileak nahiz erabiltzaileak aipatzeko; izan ere, bi nozio horien arteko alde teorikoa gorabehera, babesari begira araubide juridiko bera esleitzen die foru lege honek.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen arteko aldea soilik gordetzen da zenbait organo eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte eta antolamenduak izendatzeko.

I. TITULUA**Xedapen orokorrak eta kontsumitzaileen eskubideen printzipio gidariak****1. artikulua.** Helburua eta aplikazio eremua.

Lege honen helburua da kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta bidezko interesen babesa bermatzea Nafarroako Foru Komunitatean, Espainiako Konstituzioko 51. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan agindutakoa betetzeko eta Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 56.1.d) artikuluan esleitzen zaion eskumena baliatuta.

2. artikulua. Definizioak.

Foru lege honen ondorioetarako, honako definizio hauek erabiliko dira:

a) Kontsumitzaile eta erabiltzaileak: ondasun higigarri nahiz higiezinak, produktuak, zerbitzuak, jarduerak edo funtzioak azken hartzaile gisa erosi, erabili edo gozaten dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak, zein ere den horiek ekoitzi, eman nahiz eskaini, hornitu edo jaulkitzen dituztenen izaera, publiko nahiz pribatua, indibidual nahiz kolektiboa.

Ez dira kontsumitzaile edo erabiltzailetzat hartuko ondasunak nahiz zerbitzuak ekoitze-, eraldatze-, merkaturatze- nahiz hirugarrenei lagatze-prozesuetan sartzeko xedez azken hartzaile izan gabe erosi edo biltegitatu, erabili edo kontsumitzen dituztenenak.

b) Azken hartzaileak: ondasunak nahiz zerbitzuak erosi, erabili edo gozaten dituzten pertsona fisikoak, baldin eta horien xede bakarra erabilera edo gozamen pertsonal, familiar nahiz etxekoa bada.

Ondasunak nahiz zerbitzuak modu desinteresatuan, doan edo irabazi asmorik gabe euren langileentzat, bazkideentzat edo kideentzat nahiz eurentzat erosi, erabili edo gozaten dituzten pertsona juridikoak.

Ondasunak nahiz zerbitzuak irabazi asmorik gabe erosi, erabili edo gozaten dituzten nortasun juridikorik gabeko elkartze-entitateak.

c) Ondasunak edo zerbitzuak: kontsumitzaileek erabilitako zeinahi produktu, jarduera edo funtzio, aldi berean bertan egonda nahiz bide elektronikoz emanak badira, alde batera utzita horiek ekoitzi, hornitu edo ematen dutenen izaera indibiduala nahiz soziala publikoa den.

d) Premia biziko ondasunak eta funtsezko zerbitzuak: dituzten ezaugarri bereziak direla-eta kontsumitzaileentzat oinarritzekoak direnak, edo erabilera nahiz kontsumo arrunt eta hedatua dutenak.

e) Kontsumitzailearen defentsarako organoak: kontsumitzaileen babes eta defentsaren alorrean eskumenak esleiturik dituzten administrazio publikoetako administrazio organoak, baldin eta eskumen horiek baliatzen badituzte.

3. artikulua. Lehentasunezko babes egoerak.

Gutxiagotasun, mendekotasun, defentsa-gabezia edo babesgabetasun egoeran dauden kontsumitzaile eta erabiltzaile taldeei babes berezia emanen diete Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, lege honetan xedatuaren esparruan, eta bereziki haurrei, nerabeei, zaharrei, haurdun dauden emakumeei, familia-zama eta dirusarrera apalak izan eta bakarrik dauden gizon eta emakumeei, marjinazio edo indarkeria prozesuek kaltetutako gizon eta emakumeei, gaixoei, minusbaliatuei, etorkinei eta ekonomia nahiz gizarte talde ahulenei.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek arreta berezia jarriko dute erabilera nahiz kontsumo arrunt eta hedatua duten produktu eta zerbitzuei dagokienez.

4. artikulua. Kontsumo arloan jarduteko printzipio orokorrak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, zein bere eskumeneko esparruan, neurri eragingarriak baliatuta bermatuko dute kontsumitzaile eta erabiltzaileen babes eta defentsa.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek arau eta zehapen arloko eskumenak baliatuko dituzte, eta zaintza berezi eta iraunkorreko neurriak hartuko dituzte ondokoei buruzko araudia betetzen dela bermatzeko:

a) Elikagaien eta edariaren higieze nahiz osasun arloko kalitatea, bai eta horiek prestatu, biltegitatu edo saltzen diren establezimenduetakoa ere.

b) Produktu toxikoen eta substantzia arriskuetsuen jatorria, banaketa eta erabilera.

c) Etxebizitzaren eta etxebizitzetako erkidego-zerbitzuen segurtasuna eta bizigarritasuna, hala nola argindarrarena, gasarena, urarena, saneamenduarena eta igogailuarena, bai eta suteen prebentzioa eta itzaltzea ere.

d) Pertsona nahiz salgaien garraio bide publiko-aren segurtasuna eta kalitatea.

e) Aplikatzekoa den araudia establezimendu publikotzat jotzen dituzten segurtasuna, bai eta ikastetxeena eta erkidegoak erabili eta gozatzeko gainontzeko lekuena ere.

f) Ehungintzako produktuen osaera, erregarritasun-graduak, toxikotasuna eta erabilera arauak, bai eta haurrentzako produktuen segurtasuna ere.

g) Ezgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna, arkitektura, hirigintza, garraio eta komunikazioetan.

h) Telekomunikazioetako eta informazioaren gizarteko zerbitzuak ematea, eta aplikatzeko den araudian eskatzen diren kalitate eta segurtasun maileri eta sistemei eustea.

i) Ondasun eta zerbitzuengatik eskatzen diren prezioen legezkotasuna, gardentasuna eta irisgarritasuna, bai eta kontsumitzaileari jasanarazten zaizkion kostu eta komisioena ere.

j) Zerbitzu publikoen eta interes orokorrekoen kalitatea eta prestazio unibertsala.

k) Gutxiagotasun, mendekotasun, defentsagabezia edo babesgabetasun larriagoan dauden kontsumitzaile taldeen babesa.

l) Bitartekoak eta baliabideak jartzea kontsumitzaile eta erabiltzaileek kexak eta erreklamazioak gauzatu eta eragingarri egin ahal izan ditzaten, erositako ondasunak eta gozatutako zerbitzuak direla eta.

m) Kontsumitzaileen interes ekonomikoen babesa, salmenta berezietako edozein modalitatearen eta merkataritza-sustapenen aurrean.

n) Automozioko erregaiak txikizka banatzea, publikoari saltzeko instalazioetan.

3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek berriazko zaintza eta laguntza emanen dute, legedia indardunarekin bat, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa eta babesean hondamendi nahiz larrialdi egoeretan eta erkidegoarentzat funtsezkoak diren zerbitzuak eta premia biziko ondasunak hornitu edo banatzeko eragozpen larria dagoenetan.

4. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek kontsumo arloko elkarteak sustatuko dituzte, kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko oinarritzko tresna diren aldetik.

5. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek gainontzeko administrazio publikoekin batera jardunen dute, informazioa azkar trukatzeko aldera estatuko legedian ezarrita dauden eta foru administrazioan ezar litezkeen sistemen bidez.

6. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoak gainontzeko administrazio publikoekin koordinatuko dira kontsumitzaileak babesteari buruzko jarduketetan.

7. Foru administrazioak zentro tekniko publiko nahiz pribatuekiko lankidetzaren tresnak ezarri ahalko dituzte, foru administrazioarekin lankidetzan aritu daitezkeen kontsumo arloko azterlanak, txostenak eta aholkuak ematean.

5. artikulua. Nafarroako administrazio publiko-
en eskumenak.

Nafarroako Gobernuari dagokio kontsumo arloko politikaren plangintza orokorra egitea Nafarroako Foru Komunitatean eta lege hau garatzeko balioko duten erregelamenduak onestea. Orobat dagokio toki entitateekiko koordinazio tresnak eta batera jarduteko programak sustatzea, haiei laguntza tekniko eta finantza-laguntza emanez kasuan-kasuan ezartzen den lankidetzaren esparruan.

6. artikulua. Toki administrazioen eskumenak.

Toki entitateei dagokie, zeini bere lurralde esparruan, kontsumitzaileen babes eta defentsa sustatu eta garatzea, legedia indardunak esleitzen dien muga eta edukiarekin.

II. TITULUA

Kontsumitzaileen eskubideak

7. artikulua. Kontsumitzaileen eskubideak.

1. Ondokoak dira kontsumitzaileen oinarritzko eskubideak:

a) Kontsumitzaileen osasunari eta segurtasunari eragin diezaieketen arriskuen aurreko babes eraginkorra jasotzea, ingurumenarentzat eta bizi kalitatearentzat mehatxu direnak barne.

b) Haien bidezko interes ekonomiko eta sozialak babesturik izatea.

c) Babes juridiko, administratibo eta tekniko jasotzea, eta, bidezkoa bada, kalte-galerak konpondu edo ordaintzea.

d) Ondasunei eta zerbitzuei buruzko informazioa –egiazkoa, argia, egokia eta nahikoa– izatea, eta kontsumo arloko hezkuntza eta prestakuntza jasotzea.

e) Kontsumitzaileen erakunde bitartez ordezkatuta egotea, euren interesak aldezteko, eta eragiten dieten arloetan haiei kontsulta egin eta entzunaldia ematea.

2. Lege honetan kontsumitzaile eta erabiltzaileei ondasunak erosi eta zerbitzuak erabiltzeko aitortzen zaizkien eskubideei, bai eta lege honetako agindu eta debekuei ere, aldeztu aurretik uko egitea erabat deuseza izanen da.

Lege iruzurrez egindako egintzak ez dira oztopo izanen ihes egin nahi izan zaion araua aplikatzen dadin.

I. KAPITULUA

Osasuna eta segurtasuna babesteko eskubidea

8. artikulua. Produktu, ondasun eta zerbitzuen segurtasuna.

1. Merkaturatutako produktu, ondasun eta zerbitzuek ez dute kontsumitzaileen osasun eta segurtasunerako arriskurik izanen, ezta ingurumeneko ere, salbu eta ohikoak direnak eta erabiltzeko baldintza normaletan eta aurreikusteko modukoetan erregelamendu bidez onartutakoak. Hala ez bada, erretiratu, bertan behera utzi edo ibilgetu beharko dira prozedura eraginkorren bidez, eta hori dena ez da eragozpen izanen kontsumitzaileei horri buruz informatzeko.

2. Produktu bat segurutzat hartuko da baldin eta erabiltzeko baldintza normaletan edo aurreikusteko modukoetan –iraupena barne– inolako arriskurik ez badu, edo gutxieneko arriskua baizik ez badu eta arrisku hori bateragarria bada produktuaren erabilerarekin eta onargarritzat jotzen bada pertsonen osasunaren eta segurtasunaren nahiz ingurumenaren babes maila jaso batekiko errespetuaren baitan.

Segurtasun maila handiagoak lortzeko aukera edo arrisku maila txikiagoko produktuak lortzeko ez da nahiko izanen produktu bat ez-seguru edo arriskutsutzat hartzeko.

3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoak arduratuko dira kontsumitzaileek ondasunak edo zerbitzuak kontsumitu edo erabiltzeko baldintzak eta moduak ezagut ditzaten, halako moduz non horiek behar bezala gordez gero ezin izanen baita aurreikusteko moduko kalte edo arriskurik sortu.

4. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek behar bezalako zaintza, kontrola eta ikuskapena eginen dute, legedia indardunarekin bat, bere lurraldean kontsumitzaileen osasuna eta segurtasuna bermatze aldera erregelamendu bidez eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten substantzia, ondasun eta zerbitzuak prestatze-ari, erabiltze-ari, zirkulatze-ari eta eskaintze-ari aurrea hartzeko eta zehatzeko.

9. artikulua. Produktuen segurtasunaren arloko erantzukizuna.

1. Ekoizleek produktu seguruak soilik merkaturatzeko eta segurtasun hori eskaera egiten dion agintearen aurrean frogatzeko betebeharra dute.

2. Ekoizleek, zeinek bere jardueraren mugen barruan, kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa eman behar diete, bitarteko egokiak baliatuta, abisatu ezean berehalakoan hauteman ezin diren eta produktuen erabilera arrunt edo aurreikusteko moduko batetik heltzen ahal diren arriskuei buruz, kontuan harturik produktuen izaera, iraupen-baldintzak eta zein pertsonari zuzendurik dauden. Informazio hori emateak ez du salbuetsiko agindu honetan ezarritako gainontzeko betebeharrak betetzetik.

3. Ekoizleek, zeinek bere jardueraren mugetan eta produktuen ezaugarrien arabera, ondokoak bete beharko dituzte:

a) Produktuek izan ditzaketen arriskuei buruz informatuta egon eta banatzaileei behar bezala informatu. Hartara, arriskua egon litekeelako ondorioa eragin dezaketen erreklamazioak erregistratu eta aztertuko dituzte, eta, kasua bada, merkaturatutako produktuen laginketa bidezko probak eginen dituzte edo beste sistema egoki batzuk ezarriko dituzte. Betebehar hori betetzeko modua erregelamendu berariazko batek ezartzen baldin badu, erregelamendu horretan ezarritakoa beteko da.

b) Merkaturan kontsumitzailearentzat segurtasunaren betebehar orokorrenekin bateraezinak diren arriskuak dituzten produktuak jarri dituztela ohartzen badira edo hori hala delako zantzu nahiko badute, arriskuak ekiditeko neurri egokiak hartuko dituzte –nahiz eta administrazio organo eskudunek halakorik ez eskatu–, besteak beste kontsumitzaileei informatzea, beharrezkoa bada, ohar berezien bidez, produktuak merkaturatik kentzea edo kontsumitzaileei produktuak hartzea.

c) Enpresaren identifikazio datuak eta produktuaren erreferentziari edo, kasua bada, fabrikazio loteari buruzkoak adierazi, produktuan edo ontziki-an, salbu eta informazio hori ez jartzea justifikatuta dagoen kasuetan. Fabrikazio lotearekin adierazten diren datuak hiru urtez gorde beharko ditu ekoizleak produktu guztietarako. Iraungipen-data edo gomendatutako kontsumo-data daramaten produktuetan, epe hori urtebetera murriztu ahal izanen da, eta data horretatik aitzina urtebetez soilik gorde datu horiek.

4. Banatzaileek produktu seguruak soilik banatzeko betebeharra dute; hortaz, ez dute produkturik banatuko baldin eta, duten informazioaren arabera eta profesionalak diren aldetik, betebehar hori betetzen ez dela badakite edo jakin beharko balute.

5. Banatzaileek arduraz jardunen dute, aplikatuzkoak diren segurtasun-baldintzak betetzen laguntzeko, bereziki produktuak biltegitatu, garraiatu eta erakusgai jartzekoan.

6. Banatzaileek, zeinek bere jardueraren mugen barruan, merkaturatuako produktuen segurtasuna zaintzen parte hartuko dute, eta zehazki:

a) Arriskuei buruzko informazioa emanen diete administrazio organo eskudunei eta ekoizleei arriskuren baten berri dutenean.

b) Produktuen izakinak agortu ondoko hiru urteko epean gordeko dute produktuen jatorria ezagutzeko beharrezkoa den dokumentazioa, eta zehazki hornitzaileen nortasunari buruzkoa, eta, txikizkako merkataria ez badira, haien destinoa, eta, kasua bada, dokumentazio hori emanen dioten eskaria egiten duten agintariei.

c) Arriskuak ekidite aldera ekoizleek eta administrazio organo eskudunek abiarazitako jarduketan eraginkortasunez lagunduko dute.

d) Kontsumitzaileei ondasun edo zerbitzuak erabiltzearen arriskuei buruz informatuko diete, ekoizleek emandako informazioarekin bat.

7. Ekoizle eta banatzaileek kreditatu beharko dute Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean merkaturatutako produktu, ondasun eta zerbitzuek nahitaez aplikatu beharreko ingurumen-araudia betetzen dutela.

8. Merkaturatutako produktu batek bete beharreko segurtasun-betekizunekin bateraezina den arriskua duelako susmorik edo berririk baldin badute ekoizle eta banatzaileek berehala jakinaraziko diote kontsumo arloko administrazio-organoko eskudunari. Administrazioekin lankidetzan aritu beharko dute, orobat, banatu dituzten produktuek izan ditzaketen arriskuak ekidite aldera administrazioek abiarazitako jarduketa guztietan, hala materialetan nola juridikoetan, eta, kasua bada, behar den informazio guztia emanen dute –nahiz eta industriako sekretuak babestua egon–, eta jarduketaren kostuak bere gain hartuko dituzte.

9. Ekoizle edo banatzaileak beste autonomia erkidego batean baldin badauka sozietatearen helbidea eta produktua erkidego bat baino gehigotan banatu baldin bada, arestiko idatz-zatian aipatzen den jakinarazpena estatuko araudian xedatuarekin bat egingen da.

II. KAPITULUA

Interes ekonomiko eta sozialak babesturik izateko eskubidea

10. artikulua. Lege esparrua

Lege honetan eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzko estatuko legedian ezarritakoari jarraikiz errespetatu beharko dira kontsumi-

tzaileen bidezko interes ekonomiko eta sozialak. Kontsumitzailearentzat aukera onuragarrienaren printzipioari jarraikiz ebatziko dira lehia-kasuak, baldin eta ez badatoz bat araudi hau eta xedapen zibilak, merkataritza-xedapenak, kanpo nahiz barne merkataritza arautzen duten xedapenak eta produktu nahiz zerbitzu bakoitza baimentzeko araubidea.

11. artikulua. Kontsumitzaileen eskubideak, ondasunak eta zerbitzuak eskaini, erosi, erabili eta gozatzean.

1. Kontsumitzaileek ondoko eskubideak izanen dituzte, ondasunak eta zerbitzuak eskaini, erosi, erabili eta gozatzean:

a) Eskaintza, sustapen nahiz publizitatean sartzen diren datuak, ezaugarriak eta baldintzak eman dakizkien exijitzekoa. Halere, kontratuak klausula onuragarriagorik baldin badu, lehentasuna izanen du eskaintza, sustapen nahiz publizitatearen aldean.

b) Merkaturan salgai jarritako ondasun eta zerbitzuen funtsezko ezaugarriei buruzko informazio gaurkotua, osoa, egiazkoa eta gardena jasotzekoa.

c) Kasuan kasuko araudiak interes orokorreko zerbitzuei edo kontsumoko ondasunen produkzio eta fabrikazioari ezarritako kalitate-mailak betetzen direla exijitzekoa.

d) Legez nahiz erregelamendu bidez ezarritako gehieneko prezioak kontsumitzaileen kaltetan hausten dituzten kontratu bidezko hitzarmenak aintzat har ez daitezten.

e) Interes orokorreko zerbitzuen hornikuntza eten ez dadin, salbu eta legedia indardunean ezarritako kasuetan.

f) Laguntza teknikoko eta ordezeko piezen zerbitzuak exijitzekoa, izaera iraunkorreko ondasunen kontratazioan legez ezarritako gutxienezko epeak dirauen bitartean.

g) Etxebizitza salerostean edo higiezinaren eskubideak eskuratzean aurreratutako kopuruak edo bestelako edozein aurrerakin ordaintzea exiji ez dakien, legez ezarritako modu eta bermearekin ez bada.

h) Gastu, kostu, hobekuntza edo zeinahi prezio-igoerarik jasanarazi ez dakien, behar bezala onartu ez dituzten prestazioen truke edo kontsumitzaileek ez onartzeko egiazko aukera izan ez duten ondasun edo zerbitzuen truke.

i) Kontratua idatziz jaso dadin eta ziurtagiria, faktura xehekatua edo kreditatze agiria nahiz gor-

dailu- ziurtagiria eman dakien, inolako gainkosturik gabe, baldin eta erosleak exijitzen badu edo kasuan kasuko arauak ezartzen badu.

j) Ondasun erosi edo zerbitzua eman aurreko aurrekontua egin dadin, baldin eta ezin bada ezarri horien prezioa kontratazioaren unean. Jarraian edo zerbitzu profesionalak ematen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek aurrekontu bat egin beharra dute, zeinetan zehaztuko diren, argi eta garbi zehaztu ere, zerbitzua ematen duena identifikatzeko datuak, aurrekontuaren indarraldia eta zerbitzuaren kostu osoa, kontzeptu guztiak barne, errekarquak eta aplikatzekoak diren zergak.

k) Ondasun iraunkorak erostean berme-agiri bat eman dakien, baldin eta berme hori aplikatzeko den araudiaren arabera exijitzeko modukoa bada.

l) Ezeztatze-agiri bat eman dakien eta kontratua ezeztatu eta erabakian atzera egitekoa, araudi indardunak ezarritako moduan.

m) Banan-banan negoziatu ez diren kontratazio-baldintza orokorretan edo klausuletan jasotako betebeharrak betetzea exijitu ez dakien, baldin eta horiek ez badira kontratuan sartu.

n) Ondasun eta zerbitzuen –zerbitzu profesionalak barne– hornitzaileek erreklamazio-orrien ale baimendu bat eman diezaieten, norberak eskatuz gero; behar bezala iragarri beharko da, araudi indardunak ezarritako moduan.

ñ) Prezio eta tarifa indardunak jendaurrean eta begi-bistan jar daitezzen, produktu, ondasun eta zerbitzuen ondoan.

o) Abonatuta dauden zerbitzuak moztu, bertan behera utzi edo etenez gero kalte-ordaina eman dakien, legedia indardunean ezarritako moduan.

p) Kontratuetan ez daitezzen sar banan-banan negoziatu gabeko klausula edo hizpaketak, kontsumitzailearen kalterako direnak, fede onaren aurkakoak, kontratutik heldu diren aldean eskubide eta betebeharren arteko desoreka handia eragin dezaketanak.

q) Kostu bidezko murrizketa eta eragozpen neurrigabeak ezar ez dakizkien, kontratuan aitoritutako eskubideak baliatzean, eta bereziki ondasunak hornitu edo zerbitzuak emateko kontratuetan baja emateko eskubidea baliatzean.

r) Berme-gordailuak exijitu ez dakizkien zerbitzu publikoak eta interes orokorrekoak ematean, ez bada araudi indardunean ezarritako baldintzetan.

s) Egiaz kontsumitu edo erabili gabeko produktu eta zerbitzuen ordainketa exiji ez dakien, eta kontsumitutako denboran edo produktu eta zerbitzuen prezioan goranzko biribiltzea egin ez dakien.

2. Eskubide horiek baliatzeak ez ditu eragotziko kasuan kasuko sektoreko araudian ezarritako kontsumitzaileen eskubideak.

III. KAPITULUA

Babes juridiko, administratibo eta teknikorako eskubidea

12. artikulua. Babes jarduketak.

1. Foru administrazioak kontsumitzaileak bere lurraldean egiaz babesteko beharrezkoak diren jarduketak juridiko, administratibo eta teknikoak garatuko ditu, eta ondokoetara bideratuko du bere jarduna:

– Produktu, ondasun eta zerbitzuen kalitatea ikuskatu eta kontrolatzeko jarduketak programatu eta egitea.

– Arrisku mota bakoitzaren aurrean babesteko beharrezkoak diren administrazio neurriak hartzea.

– Legedia garatzea kontsumitzaileen babes maila jasoa lortzeko.

– Kontsumitzaileen eskakizunetan bitartekotza eta adiskidetasunezko konponbide tresnak bideratzea.

– Zentro eta entitate laguntzaileekiko lankidetzatza tekniko eta juridikoa bultzatzea.

2. Estatuko legediarekin bat, kontsumitzaileek eskubidea dute ondasun eta zerbitzuen kontsumoan frogatutako kalte edo galerak direla-eta kalte-ordaina eman dakien, salbu eta kaltea bere errua ez beste inorena edo erantzukizun zibila duten pertsonena bada.

13. artikulua. Erreklamazioak.

1. Nafarroako Foru Komunitatean produktuak eta ondasunak merkaturatu, zerbitzuak eman eta lanbide nahiz enpresa jarduerak egiten dituzten establezimenduek erreklamazio orriak izanen dituzte kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskura, eta orriak behar bezala iragarriko dituzte, araudi indardunean ezarritako moduan.

2. Zerbitzua etxetik ematen baldin bada, zerbitzu-emaeleak erabiltzailearen esku jarriko ditu erreklamazio orriak.

3. Ondasun edo zerbitzuak eskaintzen badira jendeari irekitako establezimendurik gabe edo bezeroekin buruz buru egon gabe, entitate eta

enpresa horiek erreklamazio prozedurei buruzko informazio nahiko eman beharko dute, eta postahelbide bat eman beharko dute, gutxienez ere, kontsumitzaile eta erabiltzaileek euren kexa eta erreklamazioak aurkez ditzaten.

4. Erreklamazio orriak erabiltzea bateragarria da administrazio erreklamazioak zuzenbidean onartutako beste edozein bide baliatuta aurkeztea-rekin, bide telematikoak barne.

14. artikulua. Bitartekotza eta arbitrajea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioek kontsumitzaileen eta profesional nahiz enpresen eskura jartze aldera elkarri laguntza emanen diote kontsumo arloko erreklamazioak adiskidetasunez konpontzeko sistema eragileak, eta, estatuko administrazioekin lankidetzan sustatuko dute kontsumoko arbitraje sistemaren garapena eta Foru Komunitate osoko enpresa eta profesionalak sistema horri atxikitzea. Kontsumoko arbitrajea ez den beste arbitraje batekiko mendekotasuna soilik hitzartu ahalko da kontsumitzaileak zer erreklamatu zaien dakienean.

2. Orobat, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, zeinek bere esparruan bultzatuko dute euren menpeko entitate edo enpresa publikoek eta zerbitzu publikoak kudeatu edo haien baliabideak jasotzen dituzten entitate edo enpresa pribatuak euren kontratuetan ezar dezaten kontsumoko arbitraje sistema onartu beharra euren jardueraren ondoriozko gatazkak eta kontsumitzaileen erreklamazioak konpontzeko.

IV. KAPITULUA

Kontsumitzailearen eskubidea informazioa eta hezkuntza jasotzeko

15. artikulua. Informazioa izateko eta informazioa hedatzeko eskubidea.

1. Dituzten funtsezko ezaugarriak buruzko informazioa –egiazkoa, gaurkotua, eraginkorra, ulerrgarria eta nahikoa– eman edo eskaini beharko dute, egiaz eta objektiboki eskaini ere, kontsumitzaileen eskura jarritako ondasun, produktu eta zerbitzuek. Informazio hori doan lortu ahalko dute kontsumitzaileek.

2. Informazioa, bereziki, produktuei eta zerbitzuei legez exijitzekoak zaizkien baldintzen ezagupenari buruzkoa izanen da, halako moduz non kontsumitzaileek horien nortasunari buruzko bermea izan ahalko duten, arrazionaltasun irizpideetan oinarrituta hautatu eta gogobetez erabili, nork bere burua babestean modu aktiboan parte hartuz publizitate, sustapen eta eskaintza ez-zilegien aurrean.

Foru Komunitateko administrazio publikoek, kapitulu honetan jasotzen den eskubideari babes juridikoa ematearen ondorioetarako, neurri eraginkorrak hartuko dituzte publizitate, sustapen eta eskaintza ez-zilegien, eta bereziki, hurrei edo bereziki ahulak diren taldeei zuzendutakoen aurrean babeste aldera.

3. Lehenengo idatz-zatian xedatuaren ondorioetarako, ondokoak izanen dira betiere produktu edo zerbitzuen funtsezko ezaugarriak:

– Prezio osoa, eskura nahiz epeka ordainduta, kostuak, zergak, komisioak edo gehigarriak eta interes-tasak zehaztuta, bai eta lehenengo prezioa ere, txikizkako merkataritzari buruzko araubidean exijitutako kasuetan.

– Kontsumitzailearen eskubidea ezeztatu eta atzera egiteko, aplikatzekoa den legedian onartuta baldin badago.

– Fabrikatzaileak edo saltzaileak edo zerbitzu-emaeleak emandako bermeak.

– Fabrikatzailearen edo saltzailearen nortasuna, erreklamazioetarako.

– Aseguruak, baldin eta beharrezkoak badira.

– Kontratazio-epe gutxienezkorik ote dagoen, eta kasua bada, exijitzen diren berme-gordailuak. Orobat informatu beharko da alde aurretik zerbitzuetan baja emateko prozedurari buruz.

– Etxebizitza salerostean derrigorrezkoa den informazio guztia, estatuko eta autonomia erkidegoko legedian ezarritako moduan.

– Informazioaren gizartearen zerbitzuak ematean, informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuei buruzko legedia indardunarekin bat exijitzekoa den informazioa.

– Elikagaietan eta industriako produktuetan derrigorrezkoa den informazioari buruzko argibide guztiak, genetikoki eraldatutako osagaiak barne, Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko legediarekin bat.

4. Foru Komunitateko administrazio publikoek sustatuko dute informazioaren zabalpena eta herritarrek, kontsumitzaile-hezkuntza izatea eskura, Nafarroako eragile ekonomiko eta sozialekin hitzartuz erakundearen hezkuntza eta informazio kanpainetan parte-hartze aktiboa izateko moduak.

Orobat sustatuko dute hedabideetan kontsumoari buruzko zabalkundeko saioak eta espazioak izan daitezten. Berziki, titulartasun publikoko hedabideetan eta Foru Komunitateko administrazioak partaidetza duen hedabideetan.

Foru Komunitateko administrazioak sustatuko du, enpresaburuen elkarrekin lankidetzan, ikur bereizgarriak egon daitezkeen kalitate maila handia izateagatik bereizten diren herrialdeko produktu, ondasun eta zerbitzuetarako.

16. artikulua. Kontsumitzaileen informaziorako bulegoak.

1. Foru lege honetako 15. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan xedatuaren ondorioetarako, titulartasun publikoko kontsumitzaileen informaziorako bulegoak sortuko dira. Horien sorrera eta kokalekua eragingarritasun eta hurbiltasun irizpideei jarraikiz erabakiko da.

2. Kontsumitzaileen informaziorako bulegoak Nafarroako Foru Komunitatean kontsumitzaileei informazioa, orientazioa eta aholku emateko organoak dira.

3. Kontsumitzaileen informaziorako bulegoek ondoko eginkizun berekiak izanen dituzte, estatu-ko legedian eta autonomia erkidegoko sektoreko legedian ezarritako eginkizunak gorabehera:

– Kontsumitzaileei informatu, lagundu eta orientatzea beren eskubideak egokiro balia ditzaten, eta bitartekotza egin dezaten kontsumoko erreklamazioak aurkezten direnean bere jarduteko eremuan.

– Salaketa, erreklamazio eta arbitraje-eskaerak jaso, erregistratu eta hartu izana adieraztea, eta kasuan kasuko organo edo entitateei igortzea, horien jarraipena eginez interesdunei behar bezala informatzeko.

– Borondatezko bitartekotza egiteko bidea ematea kontsumitzaile, erabiltzaile, ekoizle eta banatzaileen arteko gatazkatan.

– Eskaera zehatzak jasotzea, eta horien aginte eskudunei igortzea, haiek ematen dituzten zerbitzu batzuk aldatze aldera, edo beste berri batzuk ezartzea beharrezkoa dela iritziz gero.

– Kontsumo arloko hezkuntza eta prestakuntza lanak egitea, kontsumitzaileen prestakuntza eta hezkuntza berariazkoaren maila hobetzeko programa edo informazio kanpainen bidez.

– Ondasun eta zerbitzuen erregistro eta baime-nari buruzko datuak ematea, bai eta, duten arriskua dela-eta, bertan behera utzi, erretiratu edo debekatu direnei buruzkoak ere.

– Kontsumitzaileen elkarrekin informazioa ematea kontsumitzaileen eskubideen aurkako arau-hausteak direla-eta ezarritako zehapen irmoei buruz, lege honetako 41.2 artikuluan xedatuarekin bat.

– Erabilera edo kontsumo arrunt eta orokorreko ondasun eta zerbitzuen prezio eta baldintzen araubideari buruzko informazioa ematea.

– Kontsumitzaileen elkarrekin laguntza, babesa eta bultzada ematea, horien existentziari eta jarduerari buruz beharrezkoa den informazioa emateko beharrezkin.

– Kontsumo arloko gaiei buruzko dokumentazio tekniko eta juridikoa edukitzea, eta gaiari buruzko ikerkuntza eta azterketa sustatzea.

– Kontsumoko arbitraje sistemaren jarduerak garatzeko egoitza izatea.

– Produktu, ondasun eta zerbitzuen kontrola eta ikuskapena egitea, eskualdeko administrazioarekin lankidetzan.

4. Nafarroako Gobernuak, kontsumo arloko departamentu eskudunaren bitartez, bulegoen lana koordinatuko du, eta laguntza tekniko eta ekonomikoa emanen die, erregelamendu bidez ezartzen den moduan ezarri eta sendotze aldera.

5. Debekaturik dago edozein publizitate ez-institutuzional mota egitea kontsumitzaileen informaziorako bulegoetan, bai eta bulego horietara sartzeko ezinbestez igaro beharrezko gainontzeko espazio publikoetan ere.

17. artikulua. Hezkuntza eskubidea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoak arduratuko dira herritarrek kontsumo arloko informazioa eta hezkuntza jaso ahal izan dezaten, kontsumitzaile diren aldetik dituzten eskubideak eta horiek arduraz baliatzeko modua ezagutu dezaten, pertsonaren prestakuntza integralari lagunari baitaizkio.

2. Nafarroako Gobernuak, kontsumo arloko hezkuntza eskubide hori eragingarri egiteko xedez, neurriak hartuko ditu ondokoak lortzeko:

– Organo eskudunekin beharrezkoa den lankidetzatza ezartzea, kontsumitzaile-hezkuntza curriculum arruntean sartzeko, derrigorrezko hezkuntzaren ziklo eta maila guztietan.

– Irakasleen kontsumo arloko prestakuntza etengabea bermatzea, hezkuntza arloko erakunde eskudunekin lankidetzan.

– Kontsumitzaileentzako informazio eta orientazio lanak egiten dituzten langileen kontsumo arloko prestakuntza etengabea bermatzea.

– Kontsumitzaileentzako hezkuntzan eta prestakuntzan laguntzeko materiale didaktikoak prestatu eta argitaratzea.

3. Kontsumitzaile-hezkuntza ondokoetara bideratuko da: baliabideen erabilera arrazoizkora makurtzea kontsumo-ereduen egokitzapena, gehiegizko zorpetzeari aurrea hartzea, kontsumoko produktuak erosi, erabili, gozatu eta deusezteko banakako erabakietan ekologia-balioak aintzat hartzea eta ingurumena zaindu eta garapena lortzean kontsumitzailea ere arduratzea eta parte hartzea.

V. KAPITULUA

Ordezkatua nahiz entzuna izateko eta parte hartzeko eskubidea

18. artikulua. Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzkoa.

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak dira, elkarteei buruzko legedian ezarritakoari jarraikiz eratu eta foru lege honetan nahiz foru lege hau garatzeko arauetan exijitzen diren baldintza berariazkoa betez, irabazi asmorik gabe xede dutenak kontsumitzaileen bidezko interes eta eskubideak aldeztua, kontsumitzaileen informazioa, prestakuntza eta hezkuntza barne, bai orokorrean bai produktu eta zerbitzu jakin batzuei dagokienez.

2. Foru lege honen ondorioetarako orobat izanen dira kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak Nafarroako Foru Komunitatean kooperatibei buruzko foru aruadiari jarraikiz erabiltzaile edo kontsumitzaileek soilik eratutakoak; horretarako, beharrezkoa izanen da bere helburuen artean agertzea elkarteko bazkideen kontsumo arloko hezkuntza eta prestakuntza, eta behartuta egonen dira bazkideen ekarpenek osatutako gizarte-funtsa eratzeraz eta legedia berariazkoan ezarritako ekonomia ekitaldi bakoitzeko gerakin garbien ehuneko bideratzeraz soilik kontsumoarekin lotutako gaietan bazkideak aldeztu, informatu, hezi eta prestatzera.

3. Lege honek erabiltzaile eta kontsumitzaileen elkarte eta erakundeak aitortzen dizkien eskubide eta onurak gozatu ahal izateko, ondoko baldintzak bete beharko dituzte elkarte eta erakundeak:

a) Xede horrekin erregelamendu bidez eratzeden erregistroan izena ematea.

b) Kontsumitzaileen defentsarako ematen zaizkien laguntzak eta sustapen neurriak soilik horretarako erabiltzea.

c) Erabakiak hartu, zuzendaritza organoak hautatu eta jarduera programak prestatzean funtzionamendu demokratikoa izatea.

d) Onura mota bakoitzerako erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzak betetzea.

e) Ez onartzea bazkideen artean irabazi asmo pertsona juridikoak, eta ez jasotzea ondasunen edo kontsumitzaileentzako zerbitzuen enpresa banatzaileen elkartean edo enpresen laguntzak edo dirulaguntzak.

f) Ez egitea ondasun edo zerbitzuen informazio hutsekoa ez den publizitatea.

g) Ez jardutea epaitegiek hautemandako ausarkeria nabariak.

h) Independentziaz eta gardentasunez jardutea botere publikoen eta merkatueko eragileen aurrean, bere helburuak betetzeko.

4. Nafarroako Foru Komunitateko erabiltzaile eta kontsumitzaileen elkarte edo erakundeak ondoko eskubideak dituzte:

a) Partaidetza organoetan egotea, eta ordezkatuturik egotea kontsumitzaileen interesekoak izan daitezkeen gaiez erabaki dezaketen kontseilu sektorialetan, bai eta Nafarroako Kontsumo Kontseiluan ere.

b) Kontsumitzaileen interesen defentsarako administrazio prozedurak sustatzeko zilegitasuna, interesdun diren aldetik, Nafarroa osoan, eta hirugarrenek abiarazitako prozeduretan pertsonatzea ere, bereziki autonomia esparruan ondasunak eta zerbitzuak eskaini, sustatu eta iragartzean praktika engainagarriak edo iruzurrezkoak bukatzeari buruzkoetan.

c) Kontsumoko arbitraje sisteman parte hartzea, behin sistemari atxikita.

d) Haien intereseko gaiak buruzko informazioa lortzea.

e) Kasuan kasuko ekintza judizialak nahiz judizioz kanpokoak baliatzea bazkideen, elkartearen eta oro har kontsumitzaileen taldeko interesak aldeztuko, aplikatzeko den legediarekin bat.

f) Publizitateko informazio eta komunikazio engainagarri edo bidegabeak jendaurrean zuzentzeko exijitzea, eta, kasu horietan, legedia indardunarekin bat ihardesteko eskubidea baliatzea.

g) Zerbitzuak emateko kontratuen ereduak prestatu eta onestean parte hartzea, baldin eta administrazioek enpresa publiko nahiz pribatuen bidez ematen badituzte.

h) Gatazkak konpontzeko sistemak proposatzea.

i) Eskaerak formulatzea eta ekimenak baliatzea, legedia indardunaren esparruan, zerbitzu publikoen funtzionamenduari buruz, eta bereziki enpresa publikoek emandakoei buruz.

j) Entzunak izatea eta entzunak izateko beharra, lege honetako 21. artikuluan xedatuaren arabera, euren interesak uki ditzaketen izaera orokorreko xedapenak taxutzeko prozeduran.

19. artikulua. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarleen sustapena.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak aitortzen du kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarreak direla kontsumitzaileak ordezkatzeko eta parte hartzeko modua. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak Nafarroako kontsumitzaileen elkarreak sustatuko ditu, eta kontsumitzaileen elkarleen eta enpresaburuen arteko elkarriketa bultzatuko du.

2. Nafarroako Gobernuak kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarrekin hitzartuko du horiek parte-hartze aktiboa izan dezaten kontsumitzaileak babesteko programa bateratuetan, besteak beste ondokoei buruzkoetan: laguntza teknikoa eta defentsa juridikoa, demanden ardura, ikerkuntza, informazioa, prestakuntza, hezkuntza eta kontsultako organo kolegiatuetan parte hartzea.

3. Nafarroako erabiltzaile eta kontsumitzaileen elkarte eta erakundeei ondoko onurak emanen zaizkie:

a) Laguntza teknikoa eta finantzarioa jasotzea, alderdi gisa aurkez daitezzen Nafarroako kontsumitzaileen bidezko interesak edo eskubideak ukituta dauden prozesu judizialean.

b) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak deitu eta ematen dituen laguntza eta dirulaguntzetara iristea.

c) Onura publikokoak deklaratuak izateko eskatzea eta deklaratu ahal izatea, erregelamendu bidez ezartzen denarekin bat.

4. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarreak behartuta daude betiere xede horrekin jasotzen dituzten laguntzak eta lankidetzak tresnak kontsumitzaileen defentsarako soilik edo helburu horiek lortzeko tresna eta giza baliabideak lortzeko erabiltzera.

5. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarrekin fedea onaren, leialtasunaren eta arduraren printzipioetara doituko dituzte euren jarduerak, eta ezin izanen dute zabaldu daturik baldin eta ez badute kreditazioen, emaitza analitikoaren edo behar bezala egiaztatutako kalitate kontrolen babesik.

20. artikulua. Erregistroa.

Elkarrekin kontsumo arloko zuzendaritza nagusi eskudunari atxikirik erregelamendu bidez eratzen den kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarleen

erregistroan izena eman ahalko dute, baldin eta horien helburu nagusia kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesen defentsa bada, eta hori ez da eragozpen izanen izena-ematea derrigorrezkoa izan dadin lege honetan ezarritako eskubideak aitortzeko eta onurak gozatu ahal izateko.

21. artikulua. Entzunaldia.

Nafarroako Foru Komunitatean legez eraturako kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeei eta enpresaburuen elkarrekin entzunaldia emanen zaie nahitaez ordezkatzeko dituzten interes eta eskubideak ukitzen dituzten izaera orokorreko administrazio xedapenak taxutzeko prozeduran.

Orobat entzunen zaie administrazioak legez kontrolatu beharreko zerbitzu publikoen tarifak proposatzeko.

22. artikulua. Nafarroako Kontsumo Kontseilua

Nafarroako Kontsumo Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak kontsumo arloan duen kontsulta egin eta aholku emateko organoa da.

Entzunaldia emanen zaio nahitaez kontsumo arloko xedapen orokorrak tramitatzean.

Ondokoei osatuko dute Nafarroako Kontsumo Kontseilua: kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarrekin ordezkariak, enpresaburuen elkarrekin ordezkariak, sindikatuetako ordezkariak, kontsumo kooperatibetakoak, auzo-elkarrekin, babes berezia behar duten taldeen erakundeak, Gazteriaren Kontseilukoak eta administrazioarenak.

Erregelamendu bidez zehaztuko da haren osaketa, kideen hautaketa edo izendapena, duten ordezkariaren eta eginkizunen arabera. Nafarroako Kontsumo Kontseilua funtzionamenduari buruzko barne erregelamendu bat izanen du, kontseiluak berak onetsia.

III. TITULUA

Produktu, ondasun eta zerbitzuen kontrola eta ikuskapena

23. artikulua. Kontsumo arloko ikuskapena.

1. Kontsumitzaileen eskura jarritako produktu, ondasun eta zerbitzuen ikuskapen integraleko eta kontrol jarduketak garatuko dituzte kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsaren arloan eskumena duten Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, horien merkaturatze-fasea zeinahi den ere, egiaztatzeko ezaugarri teknikoak, higien nahiz osasun-ezaugarriak, segurtasun-ezaugarriak eta ezaugarri komertzialei dagokienez legezkotasunaren arabera direla eta behar bezala egokitzen zaizkiela horiek erosteko egon daitezkeen

itxaropenei, zeinak aurkezpenean, publizitatean, prezioan nahiz bestelakoetan egindako azalpenari zor baitzaizkio.

2. Foru erkidegoko administrazio organoek eta toki entitateek koordinatuta arituko dira ikuskapenak egiteko, eta batu eginen dituzte ikuskapenak eta kontrolak egiteko dituzten bitartekoak, aplikatzekoa den araudiarekin bat.

3. Kontsumitzaileei eskainitako edo eskaintzekoak diren ondasun eta zerbitzu guztien gainekoa izan daiteke ikuskapena, bai eta erabilitako lehen-gaien, establezimenduen eta horiek ekoitzi, banatu eta merkaturatzeko erabili diren era guztietako makinen gainekoa ere. Kontratuen perfektzioa eta exekuzioa ikuskatuko dira baldin eta administrazio-ahalmenak baliatzea ekar badezakete.

4. Kontrolak eta ikuskapenak lehentasunez eginen dira erabilera edo kontsumo arrunt eta hedatua duten produktu, ondasun eta zerbitzuen kasuan, bai eta, halako ezaugarriak ez badituzte ere, kontsumitzaile eta erabiltzaileen osasun eskubidea, segurtasuna eta bidezko interes ekonomikoak larriki kaltetzen dituzten edo kaltetu dezaketenen kasuan edo alarma soziala eragin dezaketenen kasuan ere.

24. artikulua. Kontsumo arloko ikuskatzaileak.

1. Kontsumo arloko ikuskatzaileak identifikatu eginen dira ikuskapen-eginkizunetan ari direnean, salbu eta identifikatzeak ikuskapenaren helburua zapuztu dezakeenetan. Halakoetan, idatziz zehaztuko dira ikuskapena justifikatzen duten arrazoiak, bai aktan bai administrazio espedienteetan bertan.

2. Ikuskatzaileak agintaritzaren agente izanen dira ondorio guztietarako, bereziki, egitez nahiz hitzez, zerbitzuan nahiz zerbitzuaren kariatara, haiei jarkitu edo haien aurkako atentatuak egin edo haiei men egiten ez dietenen administrazio eta zigor erantzukizunari begira.

3. Ikuskapenak egin ahal izateko, ikuskatzaileek edo kontsumo arloko agintari eskudunek beharrezkoa duten sostengua, parte-hartzea, laguntza eta babesa eskatzen ahalko diote beste edozein agintariri, eta hark eman egin beharko die.

4. Irregularitasun zantzurik hautemanen gero, legearen arabera beterik eduki beharreko eta haien lanak eskatzen dituen egiaztapenak egin ahal izateko beharrezkoa irizitako industria-, merkataritza- eta kontabilitate-dokumentazioa erakusteko eskatzen ahalko dute, bai eta kontsumitzaileentzat garrantzia duten jarduerak egiten diren lokal eta bulegoetan zuzenean sartu ere.

5. Lurraldeko administrazio publikoen menpeko zerbitzu edo enpresak –instituzionalak nahiz korporatiboak– ikuskatzen dituztenean, horien organo eta agintariekiko independentzia funtzionala izanen dute, eta eskatutako informazioa eman beharko zaie.

6. Ahalmen hori neurrian baliatuko dute, eta nahitaezkoa dena baizik ez dute eragotziko lan eta enpresa jarduera. Isiltasun profesionala gorde beharra izanen dute lortzen duten informazioa dela eta.

25. artikulua. Ikuskapena egin zaien betebeharrak.

Ikuskatzaileek edo organo eskudunek eskatuz gero, pertsona fisiko eta juridikoek ikuskapen-bisitak onartu eta errazteko betebeharra izanen dute, bai eta ondokoak ere:

a) Instalazio, produktu edo zerbitzuei buruzko informazio oro ematea, eta emandako datuak zuzenean egiaztatzen uztea ikuskatzaileei.

b) Egindako salerosketen, aplikatutako prezio eta marjinen eta horiek osatzen dituzten kontzeptu guztien dokumentazioa erakustea.

c) Arestiko letran aipatzen den dokumentazioaren kopia ematea edo kopia egiten uztea.

d) Produktu edo ondasunetatik laginak hartzen edo bestelako kontrolak edo saiakerak egiten uztea, merkaturatze fasea zeinahi den ere. Administrazioak kalte-ordaina emanen du lagin gisa erabili edo kontrolatzen gauzaez bihurtutako produktuen kostuaren truke, kontrolak egin ondotik. Arau-hausterik hautemanen gero, ezartzen den zehapenarekin batera, eragindako gastuak ordaintzeko exijitzen ahalko zaio erantzuleari.

e) Ikuskatzaileek edo organo eskudunek eskatuz gero, kontsumo bulegoetara joatea, zuzenean nahiz euren ordezkarien bidez, datu berriak ematera edo ikuskapeneko diligenziak egiaztatzerako.

26. artikulua. Ikuskapeneko aktak.

1. Ikuskatzaileek jarduketa guztiak dokumentatu dituzte oro har, akta bidez, eta aktan ondokoak jasoko dituzte:

A. Oro har:

a) Ikuskatutako establezimenduaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoaren nortasuna.

b) Ikuskatzen ari d(ir)en ikuskatzaile(ar)en eta ikuskapenera bertaratutakoaren identifikazioa, bere izenean edo interesdunarenean ari diren azalduz, eta zer izaera duen adierazita; kreditatze-

ko dokumentazioa erakusteko exijitzen ahalko zaio.

c) Hautemandako egitateak, inguruabarrak eta bertaratutakoek jasota utzi nahi dituzten adierazpenak.

d) Akta egin den tokia, eguna eta, garrantzizkoa baldin bada, ordua; bertan dauden guztiek sinatuko dute.

B. Bertaratutakoak akta sinatzeari uko egin izana, uko egin baldin dio; horrek ez du akta balio-gabetuko. Uko eginez gero, ohartaraziko zaio sinatzaera behartuta dagoela eta bere sinadura jar dezakeela arestiko a), b) eta d) letretan jasotako onartzearen ondorioetarako soil-soilik, eta hori horrela dela jasoko da.

C. Bidezkoa denean, ondokoak ere bai:

a) Lagin-hartzeen, neurketaren, egiaztatzearen edo instalazio, produktu edo zerbitzuen gainean eginiko beste edozein kontrol motaren azalpena.

b) Kontsumitzaileen osasuna edo segurtasuna zaintzeko presako beharrezana dagoenetan ikuskatzaileak edo ikuskatzaileek behin-behineko hartutako kautelazko neurriak berehalako arrisku larri baten aurrean, haien interes ekonomiko eta sozialak ez kaltetzarren, bai eta horien arazoia eta helburua ere; organo eskudunak behin-behineko neurri horiek berretsi, aldatu edo kenduko ditu hiru eguneko epean, hartu diren egunaren bihararabunetik aitzina kontatzen hasi eta hiru eguneko epean.

c) Erantsitako dokumentuen zerrenda, zeinetan adieraziko baita zer aktarekin batera doazen.

2. Ikuskapenak dirauen bitartean idatzitako dokumentuen kopia emanen diote ikuskatzaileek ikuskatutako enpresari. Laginak hartzeko operazioak, horiek egokitu eta aztertzea, egitekotan, metodo ofizialen eta erregelamenduzko prozeduren arabera egingen dira. Gero, egindako kontrolei buruz eskatzen zaion dokumentazio guztiaren kopia emanen du foru administrazioak.

3. Ikuskapenak dirauen bitartean hautematen badira kontsumitzaile eta erabiltzaileentzako kalte zuzen eta berehalakoa ez dakarten egite edo ez-egiteak, izaera formaleko irregulartasun soilak baizik ez direnak eta arau-haustearen tipifikaziora iristen ez direnak, kontsumo arloko ikuskatzaileei eskatzen ahalko zaie arrazoizkotzat jotzen den epean —ezin izanen da izan hiru egun baino gutxiago eta hogeita hamar egun baino gehiagokoa— zuzen daitezela. Epe hori iragan eta horiek zuzendu ez badira, kasuan kasuko administrazio tramitazioari jarraikiko zaio.

Errekerimendua baliozkoa izan dadin, idatziz utzi beharko dira jasota haren edukia eta ukitutako subjektuari jakinarazi zaion eguna; horren ondorio-etarako, nahiko izanen da horiek jasota dituen ikuskapen aktaren kopia ematea.

27. artikulua. Ikuskapen motak.

1. Hona instalazio, ondasun eta zerbitzuen gaineko ikuskapen motak:

a) Merkatua zaindu eta kontrolatzekoak.

b) Aztergai diren merkatuko sektoreei buruz ikertu eta informazioa lortzekoak.

c) Merkatuko eragileei aholku eta informazioa ematekoak.

2. Merkatua zaindu eta kontrolatzeko jarduketan helburua da legedia indardunak ezarritako betebeharrak eta egitekoak behar bezala betetzen direla egiaztatzea.

3. Ikertu eta informazioa lortzeko jarduketak bereziki bideratuko dira datuak lortzera, merkatuari buruzko azterlanak egin ahal izateko eta ezartzeko zein sektoretan gerta litezkeen osasun nahiz segurtasun arloko arriskuak eta kontsumitzaileen interes ekonomiko nahiz sozialentzako kalteak, zainketa eta kontrol jarduketan lehentasunezko helburu gisa jasotze aldera.

4. Merkatuko eragileei aholku eta informazioa emateko jarduketan helburua da arauak behar bezala betetzen laguntzea eta merkataritza- nahiz fabrikazio-jardunbide egokiak zabaltzea, kontsumitzaileei ematen zaizkien ondasun eta zerbitzuen eta informazioaren kalitatearen alderdi guztiak hobetzeko horien bidez.

5. Jardunbide egokien kodeak onartzea sustatuko dira, kontsumitzaileen eskubideen babeserako eta merkatuaren araubidea hobetzeko tresna diren aldetik.

Ondokoek taxutuko dituzte kode horiek: enpresa-sektoreetako ordezkariak, kontsumitzaileen erakunde eta elkarteetakoak, Nafarroako Foru Komunitateko kontsumitzaileen defentsarako organoetakoak eta euren interesak ukituta gerta litezkeen beste talde batzuetakoak, erregelamenduz ezartzen denarekin bat.

28. artikulua. Prestakuntza eta bitartekoak.

Arloan eskumenak dituzten Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek ikuskatzaileen prestakuntza etengabeaz eta euren eginkizunak bete ahal izateko bitarteko egokiak izateaz arduratu beharra dute.

29. artikulua. Kautelazko neurriak.

1. Osasunerako eta segurtasunerako edo kontsumitzaileen interes ekonomiko eta sozialak kaltezeko arrisku-zantzu argiak daudenean, agintari eskudunek agindua emanen dute zerbitzuak badaezpada eteteko edo ukitutako produktuak kautelaz atzemateko, eta debekatu egingen da horiek merkaturatzea, merkataritza-katearen zeinahi fasetan dauden ere.

2. Neurriek ondasunak edo zerbitzuak ekoitzi, banatu edo merkaturatzeko arduradunei eta arriskuak jarraitzea edo egotearen beste edozein arduraduni eragin diezaiekete, baita produktuaren edo jardueraren akatsak ezagutzen ez badituzte edo ezagutzeko modurik izan ez badute ere. Hartzaile jakin bat edo hartzaile zehaztugabe batzuk izan ditzakete, eta are orokorrak izan daitezke.

3. Neurri horiek informazioaren gizartearen zerbitzuen arduradunei ere eragin diezaiekete, baldin eta haien jarduerak arrisku egoera sortzen badu modu zuzenean. Orobat, bitartekotza lana egiten duenari agindu ahalko zaio transmititu edo biltegituzten dituzten datuak gainbegiratzeko, kasuan kasuko sektoreko legedian ezarritako moduan.

4. Kautelazko edozein neurri hartzea bateragarria da zehapen prozedura alde zurretik, aldi berean edo ondoren abiatzarekin.

30. artikulua. Babesteko administrazio jarduketak, arrisku mota bakoitzaren aurrean.

1. Merkaturan osasunerako arriskutsuak diren produktuak edo zerbitzuak daudenean, osasun arloko agintariak legedia indardunarekin bat etorritik hartzen dituzten neurriak beteko dira.

2. Kontsumitzaileen segurtasunari eragiten dioten arriskuen aurreko babesa bermatze aldera, kontsumo arloko agintari eskudunek ondokoak egin ahalko dituzte:

a) Produktuen segurtasun-ezaugarrien kontrol egokia, eskala egokian, antolatzea, baita segurutzat merkaturatu ondotik ere, erabilera edo kontsumo faseraino.

b) Zerikusia duten alderdiei beharrezkoa den informazio guztia exijitzea.

c) Produktu baten edo produktu sorta baten laginak biltzea, horien segurtasunari buruzko analisiak egiteko.

d) Produktu bat merkaturatu aurreko baldintzak ezartzea, segurua izan dadin, eta produktuak dakartzen arriskuei buruz beharrezkoak diren oharak produktuan jasota egon daitezen exijitzea.

e) Produktu batetik heldu den arriskuaren pean egon litezkeen pertsonen arrisku horri buruz beharrezkoa den informazioa berehala eman dakien xedatzea, baita abisu bereziak argitaratuz ere.

f) Aldi baterako debekatzea, kontrolak egiteko beharrezkoa den epean, produktu bat edo produktu sorta bat hornitu, hornitzeko proposatu edo erakusgai jartzea, arriskutsua delako zantzu argi eta bateratuak daudenean.

g) Produktu baten edo produktu sorta baten merkaturatzea debekatzea, arriskutsua dela egiaztatatu baldin bada, eta debeku horren betetzea bermatzeko beharrezkoak diren laguntza-neurriak ezartzea.

h) Merkaturan jarritako produktu arriskutsu baten edo sorta baten erretiratze berehalakoa eta eragingarria antolatzea, eta beharrezkoa baldin bada, behar bezalako baldintzetan deusezteza.

i) Establezimenduak aldi baterako ixtea.

3. Kontsumitzaileen bidezko interes ekonomiko eta sozialak bermatze aldera, kontsumo arloko agintari eskudunek ondokoak egin ahalko dituzte:

a) Zerbitzuak ematea edo produktuak merkaturatzea debekatzea, baldin eta behar bezala egiaztatuta bada aizundu edo faltsutu direla edo aplikatzekoa den araudiari era nabarmenean egokitzen ez zaizkiola.

b) Arestiko letran aipatutako zerbitzuak eman edo produktuak merkaturatu aurretik baldintzak ezartzea, halako moduz non ekidin egingen baita iruzurra edo kontsumitzaileak nahastea, baldin eta egokitzapen eza zuzentzeko modukoa bada.

c) Zerikusia duten alderdiei beharrezkoa den informazio guztia exijitzea.

d) Euren interes ekonomikoak nabarmen kalte-tuta ikusi duten pertsonen kalte hori konpentsatzeko ezarri diren konponbideei buruz behar bezala informazioa dakien agintzea, abisu bereziak argitaratuz.

31. artikulua. Neurrien proportzionaltasuna eta jakinarazpena.

1. Arestiko bi artikuluetako neurriek arriskuaren tamainaren arabera izan beharko dute, eta, kasua bada, kontrolak eta egiaztapenak egiteko zentro kualifikatuetan kasuan kasuko kontrol eta egiaztapenak egiteko beharrezkoa den denbora baizik ez dira luzatuko, edo interesdunek arazoa konpontzen edo arriskua erabat desagerrarazten darabiltena; hori horrela dela neurria agindu zuen agintariak egiaztatuta beharko du.

2. Arriskuak, ustez, foru erkidegoaren esparrua gainditzen badu, euren lurraldea ukituta ikus dezaketzen gainontzeko administrazioei emanen die horren berri agintari eskudunak, ezarrita dauden bide eta prozedurak baliatuz.

32. artikulua. Produktuen segurtasun-alertaren sarea.

Egiatzapena azkar egin eta, eten behar badira, arriskutsuak izan litezkeen produktuak merkatutik kendu eta zerbitzuak eten, komunikazioa ezarriko da estatuko informazioa azkar trukatzeko sistemaren bidez (alerta sarea).

IV. TITULUA Zehapen araubidea

33. artikulua. Zehatzeko ahalmena.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoari dagokie Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean kontsumoaren arloan eginiko arau-hausteak zehatzeko ahalmena, legez eta erregelamenduz xedatuari jarraituz.

2. Foru lege honetan eta haren erregelamenduzko garapenean aurreikusi ez denerako, zehapen-ahalmena egikarrituko da Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 Legeko IX. tituluaren ezarritakoaren arabera, eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioaren kasuan, gainera, Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko V. tituluaren ezarritakoaren arabera.

34. artikulua. Arau-hausteen tipifikazioa.

1. Ondokoak izanen dira ondasunak prestatzeko eta merkaturatzeko betekizun eta baldintzak ez betetzeagatiko edo zerbitzuaren instalazioaren edo ematearen baldintza teknikoak ez betetzeagatiko arau-hausteak:

1.a Ondasunak edo zerbitzuak prestatzea, banatzea, hornitzea edo eskaintzea derrigorrezko nahiz borondatezko datu edo aipamenei buruzko legeek edo erregelamenduek ezarritako informazio betebeharrak zuzen bete gabe, edozein direla ere informazio hori emateko aurreikusi diren bideak.

2.a Markatuak, ezaugarriak, trokelak edo antzeko bereizgarriak bidegabeki erabiltzea, nahitaezkoak direnak ez erabiltzea edo erregelamenduzko baldintzak betetzen ez dituztenak erabiltzea, kontsumitzaileen interesei kalte egin ahal dieten neurrian, iruzurra denean izan ezik.

3.a Ondasunak prestatu, banatu, hornitu, saldu edo eskaintzea, haien osaketa, ezaugarri tekniko-

ak edo kalitatea arauaren arabekoak ez direnean edo kasuko erregistroan deklaratu nahiz ohar-tutakoaz bestelakoak direnean.

4. Ondasun debekatuak, edo baimendu gabeko osagaiak edo ontziak dituztenak edo kontsumitzaileak babesteko ezarritako aginduzko baimenak edo bestelako kontrol administrazioak betetzen ez dituztenak prestatzea, banatzea edo publikoari eskaintzea.

5.a Gizakien kontsumorako desbideratzea eta kontsumitzaileen eskura jartzea horretarako egokiak ez diren ondasunak edo berariaz beste erabilera bat dutenak.

6.a Saltzea edo kontsumitzaileen eskura jartzea soilik enpresa- edo profesio-erabilera bat duten ondasunak, betiere horrekin kontsumitzaileen interesei kalte egin ahal zaionean.

7.a Ondasunak prestatzen, kontserbatzen, banatzen edo saltzen diren edo zerbitzuak ematen diren instalazio, establezimendu edo ibilgailuen baldintzak ez betetzea, edo haiek erabiltzea edo zabaltzea aldez aurretiko aginduzko kontrol administrazioak eduki gabe, baldintza haiek edo kontrol horiek kontsumitzaileak babesteko ezarriak direnean.

8.a Publikoari eskaintzea edo ematea debekaturiko zerbitzuak edo publikoa babesteko ezarritako aurretiko nahiz aldizkako kontrol administrazioen pean jarri ez direnak.

9.a Langile kualifikatuen betekizunak edo langileei edo enpresari langileak direla-eta ezarritako betebeharrak ez betetzea, horrek kontsumitzaileei kalte egin ahal dienean.

10.a Zerbitzuak ematea aplikatzekoak diren xedapenek ezarritako baldintzak bete gabe, horrekin kontsumitzaileen interes ekonomikoari kalte egin ahal zaionean, eta etengabeko prestazioko zerbitzu publikoaren hornidura moztea haiek esku-bidea duten bermeak errespetatu gabe.

11.a Kontsumitzaileen eskura jartzea erabilera luzeko ondasunak nahitaezkoak diren ordezkopiezak egon gabe, eta betebeharrak hori duenak ez fabrikatzea edo bermatzea ordezkopiezak egonen direla legeek eta erregelamenduek ezarritako baldintzetan.

12.a Kontsumitzaileen eskura jartzea erabilera luzeko ondasunak laguntza tekniko zerbitzurik gabe, haiek konpontzeko, edo zerbitzu horiek nabarmen desegokiak izatea; halaber, zerbitzu horiei eusteko betebeharrak ez betetzea.

13.a Beste egite edo ez-egite batzuk, nahitaez bete beharreko arauak hautsi gabe ere, kontsumi-

tzailen osasunari edo segurtasunari arriskua edo kalte efektiboa sortzen diotenak, baldin eta kasuko jardueran exijitzekoak diren arreta-neurriak jarri ez badira.

14.a Eraikuntzaren edo arau parekideen oinarriko arauak betetzen ez dituzten etxebizitzak eraikitzea, saltzea edo alokatzea, lege honetan kontsumitzaileari aitorturiko eskubideetako batean kalte erreala eragiten denean.

2. Ondokoak izanen dira ondasun eta zerbitzuetan alterazio, aizuntze edo iruzurrerengatiko arau-hausteak:

1.a Ondasunen instalazio eta konpontze zerbitzuetan eta etxeko laguntzako zerbitzuetan iruzur egitea:

a) Piezak ordezteak prezioa handitzeko, nahiz eta kontsumitzaileak adostasuna adierazi arau-haustearen adierazpen faltsuengatik.

b) Egin gabeko lanen fakturazioa.

c) Kontsumitzaileari adierazitakoak baino kalitate gutxiagoko osagarriekin eginiko lanak fakturazioa.

2.a Eskaintako edo eskaintzekoak diren ondasunen pisu, neurri, kopuru edo kalitatean iruzur egitea, bai eta zerbitzua emateko eskaintako baldintzetan ere, kalitateari, kopuruari, intentsitateari, jarraitutasunari edo garrantzia duten beste elementu batzuei dagokienez, haien izatearen edo kategoriaren arabera.

3.a Kontsumitzaileei eskuratutako ondasun edo zerbitzuetako neurketa aparatu edo sistemak manipulazioa.

3. Ondokoak izanen dira dokumentazio, merkataritza transakzio eta prezioen arloko arau-hausteak:

1.a Egindako transakzioei edo emandako zerbitzuei buruzko ziurtagiria, faktura edo kreditatze agiria emateari uko egitea, nahitaezkoa denean edo kontsumitzaileak eskatzen duenean, bai eta hura emateagatik kobratzea edo prezioa handitzea ere.

2.a Kontsumitzaileei kobratzea edo kobratzen saiatzea iragarritakoak, erakutsitakoak edo administrazioak baimendutakoak edo ezarritakoak edo hari jakinarazitakoak baino prezio altuagoak.

3.a Kontsumitzaileei ezkatzea prezioaren zati bat, ordaintzeko moduen bidez edo adostu gabeko prestazioen bitartez.

4.a Transakzioetan kontsumitzaileari ezartzea gutxieneko kopuru bat nahiz eskatu ez diren pro-

duktuak eros ditzan edo eskatu gabeko zerbitzuak onar ditzan; halaber, transakzioa egiteari uko egitea baldintza horiek onartzen ez badira.

5.a Ondasunak pilatzea eta erretiratzea prezioak handitzeko, edo prezio horien aurreikus daitezkeen handitzeak itxarotea, hartara kontsumitzaileei kalte eginez.

6.a Aurrekontuak egiteari uko egitea, nahitaezkoa denean, edo haiek egiteko baldintzak edo prezioak ezartzea hori debekaturik badago; halaber, aurrekontuan aurreikusitako prezioak igotzea kontsumitzailearen ados egon gabe.

7.a Kontsumitzaileei ez ematea gordailuaren gordekin bat, hura aginduzkoa denean edo haiek eskatzen dutenean; halaber, gordekin hori ematea ezarritako betekizunak bete gabe.

8.a Ordezko piezen edo atalen prezioak handitzea haiek ondasunen konponketetan edo instalazioetan aplikatzeko garaian; halaber, justifikaziorik gabe esku lan, lekualdatze edo bisita kontzeptuengatik sektore bakoitzerako batez beste estimatutakoak baino kopuru askoz handiagoak.

9.a Neurritz kanpoko klausulak edo praktikak ezartzea.

10.a Konponketa edo instalazio lan edo antzeko lan erabilgarriak egitea kontsumitzailearentzat horrek eskatu edo baimendu ez dituztenean.

11.a Kontsumitzaileei ez ematea bermearen agiria, arauak hala ezartzen dutenean; edozein diru kopuru kobratzea bermean sartzen diren konponketa lanak egiteagatik. Halaber, uko egitea hartatik ondorioztatzen diren betebeharrak betetzeari edo baldintzak, zailtasunak edo atzerapenak beharrik gabe ezartzea, bermetik ondorioztatzen diren betebeharrak direla eta.

12.a Ondasun bat erabili, okupatu, mantendu eta kontserbatzeko, kontsumitzaileei ez eskuratzeko hura erabiltzeko eta mantentzeko jarraibideak edo kasuko arauetan eskatzen den beste edozein agiri.

13.a Kontsumitzaileen onerako lege ezarritako aseguruak abalak edo antzeko bermeak ez formalizatzea.

14.a Kontsumitzaileen interesak babesterakoan eragina duten eta nahitaez bete beharreko agiriak, liburuak edo erregistroak ez betetzea edo oker betetzea.

4. Honakoak informazioaren eta publizitatearen arloko arau-hausteak izanen dira:

1.a Jardunbide egokien kodeen bitartez nahita onartutako betebeharrak ez betetzea haiei atxiki

zaienean eskaintzan, sustapenean nahiz publizitatean.

2.a Iruzzurrezko publizitatea edo publizitate subliminala egitea, bai eta publizitate izaera agertzen ez den iragarkiak edo informazio mezuetatik antzemateko moduan bereizirik agertzen ez diren iragarkiak zabaltzea, hori guztia publizitateari buruzko lege orokorren arabera eta kontsumitzaileengan eragina izan dezakeen neurrian ulerturik.

Halaber, Publizitateari buruzko Lege Orokorreko 8. artikulua eta hartan aurreikusitako erregelamenduen aurkako publizitatea egitea edo emititzea, kontsumitzaileen interesei kalte egin ahal dien neurrian.

3.a Merkataritza publizitatean erabiltzea administrazioak zuzenean edo entitate laguntzaileen edo kontsumitzaileen erakunde edo elkarten bitartez merkatuari buruz eginiko azterlanen emaitzak.

5. Ondokoak izanen dira legezko kontratu-betebehar edo -debekuak ez betetzeagatiko arauhaustek:

1.a Kontsumitzaileekiko kontratuetan sartzea kontratua bukatu aurretik edo aldi berean ematen ez diren testu edo agirietan bildutako baldintza orokor edo ezaugarrietarako eragozpenak, kontratuari atxikitzen zaionari hura egiteko unean bidea eman gabe jakiteko haiek badirela, eta zein norainokoa eta edukia duten.

2.a Kontratuetan abusuzko klausulak sartzea.

3.a Etxez etxeko salmenta debekatuak egitea eta urrutiko edozein kontratazio egiteko baldintzak eta betekizunak ez betetzea, ez-betetze horiek kontsumitzaileei kalte egiten dietenean.

4.a Kontsumitzaileak prestazio bat kontratatzeako askatasuna zuzenean alde batera uztera edo gutxitzera bideratutako praktikak egitea.

6. Ondokoak izanen dira ikuskatutako subjektuen betebeharrak ez betetzeagatiko arauhaustek:

1.a Kontsumitzaileen onurarako lege edo erregelamenduz ezarritako betebeharrak, debekuak eta betekizunak ez betetzea dakarren edozein jokabide gauzatzea, baldin eta administrazioaren errekerimenduaren ondoren eta horretarako emandako denbora iraganda, ez badira behar diren zuzenketak egin.

2.a Ikuskatuak edo hirugarrenek ikuskatze jardueri aurka egitea edo haiek oztopatzea.

3.a Administrazioak hartutako neurriak edo ezarritako errekerimenduak ez betetzea, behin behinekoak direnak barne.

4.a Erregelamenduz gordailatutako laginak bainemenik gabe manipulatzeko, lekuz aldatzea edo erabiltzea.

7. Beste arau-hauste batzuk:

1.a Kontsumitzaileak edo haien erakunde edo elkarteak erreklamazioak edo salaketak aurkezteko ahalmenez libreki baliatzea galarazteko ekintzak.

2.a Kexa nahiz erreklamazio ofizialeterako orri-en liburuak ez edukitzea; halaber, haiek eskatzen dituzten kontsumitzaileei emateari uko egitea edo bide horretatik aurkezturiko erreklamazioak ezkutatzea edo aldaraztea.

Erreklamazio bat aurkeztu nahi duten kontsumitzaileei kexa eta erreklamazioetarako orrien liburu ez ofizialak ematea.

3.a Ez erantzutea epe barruan kontsumitzaileek aurkezturiko kexa eta erreklamazioei.

4.a Jendaurrean ez edukitzea, erregelamenduz ezarritako baldintzetan, kexa eta erreklamazioetarako orriak badaudela iragartzen duen kartela.

5.a Kontsumitzaileekiko arreta edo begirunerik gabe jokatzeko, horren barne direla gehiegizko atzerapenak eta itxaronaldiak edo tratu desegokia.

6.a Kontsumitzaileei justifikaziorik gabe ezarritako beren eskubideez baliatzeko edo kobrantzak, ordainketak edo antzeko tramiteak egiteko pertsonalki agertzeko betebeharra, edo neurritz kanpoko eran exijitzea inprimakiak bete ditzaten edo proportziorik gabeko eragozpenak eragiten duten datuak eman ditzaten, bai eta oztopatzea, eragozte edo zailtzea kontsumitzaileak beren eskubideez baliatu ahal izatea.

7.a Kontsumitzaileen edo haien taldeen aurka bazterkeriaz jardutea, haien inguruabar pertsonal edo sozialengatik edo haien eskubideez baliatu direlako.

8.a Ondasunak saldu edo hornitzeko, establezimenduetara sartzeko eta adingabeei zerbitzuak edo publizitatea emateko berriazko debekuak ez betetzea, baldin eta horrek kontsumitzaileen osasunerako, segurtasunerako edo bidezko interes ekonomiko eta sozialetarako arriskua badakar.

9.a Oro har, lege honetan, arlo honetako estatuko legeetan eta haiek garatzeko xedapenetan ezarritako betekizunak, betebeharrak edo debekuak ez betetzea.

35. artikulua. Arau-hausteen erantzuleak.

1. Egile gisako erantzuleak izanen dira doluz nahiz zuhurtzia gabekeriak foru lege honetan

arau-hauste gisa sailkaturiko zuzenbidearen aurkako egiteak edo ez-egiteak gauzatzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

2. Ondasun edo zerbitzu berdin batzuk direla eta, subjektu ezberdinek esku hartu dutenean, ekoizle, banatzaile, txikizkako saltzaile edo beste edozeinen gisara, horietako bakoitza izanen da, kasua bada, egin duen arau-haustearen erantzulea. Bakoitzari jartzen zaizkion zehapenak independenteak, banakatuak eta arau-hauste horietako bakoitzeko inguruabar objektibo eta subjektiboetarako egokiak izanen dira.

Halaber, arau-hauste beraren egilekideen erantzukizuna independentea izanen da, eta horietako bakoitzari dagokion zehapena ezarriko zaio.

Zehazki,

a) Kontsumitzaile edo erabiltzaileentzako produktuak edo zerbitzuak egiten, inportatzen, saltzen edo hornitzen dituen haien jatorriaren, nortasunaren eta egokitasunaren eta haietan egiaztatu diren arau-hausteen erantzulea izanen da, norberaren jarduketaren arabera.

b) Ontziratutako gabeko produktuen erantzulea haien edukitzailea da, salbu eta aurreko edukitzailearen erantzukizuna egiazki probatzeko modua duenean.

c) Ontziratutako, etiketatutako edo guztizko itxiturekin itxitutako produktuen kasuan, erantzulea etiketan, aurkezpenean edo publizitatean ageri den firma edo izan soziala izanen da. Erantzukizun horretatik kanpo utzi ahalko da probatuz hirugarrenek haiek faltsifikatu edo oker manipulatu dituztela; halakoetan hirugarren horiek izanen dira erantzuleak.

3. Arau-hauste bat pertsona juridiko bati egozten zaionean, erantzule gisa hartu ahalko dira, halaber, haien burutza nahiz zuzendaritza organoak osatzen dituzten pertsona fisikoak, bai eta prestatzearen eta kontrolaren erantzukizuna duten teknikariak, sozietateei buruz indarra duten legeen arabera.

Pertsona juridikoen kasuan, sinesgarriro jasota geratzen denean kideetako bakarren batek ezezkoa edo aurkako botoa eman duela arau-hauste gisa sailkaturiko jarduketari dagokionez, erantzukizun horretatik kanpo geratuko da.

36. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

1. Kontsumoaren arloko arau-hausteak arin, larri edo oso larritzat sailkatuko dira ondoko irizpideen arabera:

a) Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen osasunerako edo segurtasunerako kalte edo arrisku larria.

b) Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes ekonomikoak larriki kaltetzea.

c) Zabarkeria larria edo dolua.

d) Arau-haustearen orokortzea, hark ukitutako pertsonen kopuruari dagokionez.

e) Bereziki babestutako pertsonen talde bat zuzenean kaltetzea.

Foru lege honetako 34. artikuluan jasotako egite eta ez-egite guztiak hasiera batean arintzat joko dira, salbu eta 2. idatz-zatiko 5. arau-haustea, 3. idatz-zatiko 2. eta 3. arau-hausteak, 4. idatz-zatiko 12. arau-haustea, 6. idatz-zatiko 2. arau-haustea eta 7. idatz-zatiko 4. arau-haustea: horiek guztiak, hasiera batean, larritzat sailkatuko dira.

Hasiera batean arintzat sailkaturiko arau-hausteak larritzat sailkatuko dira ondoko inguruabarretako bat gertatzen denean:

a) Arau-hauste horiek egin izatea nahita edo exijitzekoak diren diligenzia betebeharraren oinarritzeko enetan ere huts eginez.

b) Arau-hauste etengabe edo ohiko praktika bat izatea.

c) Merkatuan ondorio handiak edukitzea, kontsumitzaile ugariengan eraginez.

Aurreko idatz-zatien arabera oso larritzat sailkaturiko arau-hausteak oso larritzat hartuko dira ondoko inguruabarretakoren bat dagoenean:

a) Gizartean asaldura larria eragiten dutenean, kontsumitzaileengan alarma edo konfiantza eza sortuz edo sektore ekonomiko batean kaltea eraginez.

b) Kontsumitzaile batzuen edo haien talde batzuen –esate baterako, etorkinak, adingabeak, adindunak edo ezgaituak– gutxiagotasun egoera berezia ustiatuz egin direnean.

c) Pertsona batzuen edo erabilera edo kontsumo arrunt eta orokorreko ondasun edo zerbitzu batzuen premia egoerak aprobetxatuz egin direnean, edo egoera horixe sortzea.

d) Arau-haustea merkatuaren sektore batean daukan nagusitasunaz baliatuz egin direnean.

37. artikulua. Zehapenak.

1. Kontsumitzaileen defentsaren arloko arau-hausteengatik ondoko zehapenak ezarri ahalko dira:

A. Arau-hauste arinengatik:

a) Idatzizko kargu-hartzea.

b) 5.000 euro bitarteko isuna, hurrengo tartekin:

Gutxieneko gradua: 1.000 euro bitarte.

Erdiko gradua: 1.001 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna.

Gehieneko gradua: 3.001 eurotik 5.000 eurora bitarteko isuna.

B. Arau-hauste larriengatik. 5.001 eurotik 30.000 eurora bitarte, eta zilegi izanen da kopuru hori gainditzea lege-haustean izan diren produktu edo zerbitzuek balio dutenaren halako bosteraino. Tarteak ondokoak izanen dira:

Gutxieneko gradua: 5.001 eurotik 10.000 eurora bitarteko isuna.

Erdiko gradua: 10.001 eurotik 20.000 eurora bitarteko isuna.

Gehieneko gradua: 21.001 eurotik 30.000 eurora bitarteko isuna.

C. Arau-hauste oso larriengatik:

a) 30.001 eurotik 900.000 eurora bitarte, eta zilegi izanen da kopuru hori gainditzea lege-haustean izan diren produktu edo zerbitzuek balio dutenaren halako bosteraino. Tarteak ondokoak izanen dira:

Gutxieneko gradua: 30.001 eurotik 200.000 eurora bitarteko isuna.

Erdiko gradua: 300.001 eurotik 600.000 eurora bitarteko isuna.

Gehieneko gradua: 600.001 eurotik 900.000 eurora bitarteko isuna.

b) Establezimendua, instalazioa edo zerbitzua aldi baterako ixtea, gehienez ere bost urterako.

2. Eredugarritasun arrazoiengatik eta kontsumitzaileen osasunerako, segurtasunerako nahiz interes ekonomikoetarako arrisku inguruabarren bat gertatzen den edo antzeko arau-hausteak errepikatzen diren edo nahita egitea egiaztatua dagoen guztietan, prozeduraren ebazpena hartzen duen agintariak aukera izanen du ezarritako zehapenak argitaratzeko, ebazpena irmoa izan eta hiru hileko epean. Argitaratze horretan, enpresaren edo pertsona natural edo juridiko arduradunen izena bilduko da, eta arau-hausteen mota edo izaera; ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, bai eta etorkizuneko arau-hausteen prebentziorako egokiak jotzen diren hedabideetan ere.

3. Espedientea ebaztea dagokion agintariak erabaki ahalko du, zehapen osagarri gisa, konfiskatzea salgai aizundua, faltsifikatua, iruzurrezkoa edo identifikatu gabea, edo kontsumitzailearentzat arriskua ekar lezakeena.

38. artikulua. Zehapenen mailakatzeta.

1. Jarri beharreko zehapenak eta haien tamaina zehazteko, betiere ezarritako gutxieneko eta gehienekoen barruan, ondoko idatz-zatietan aurreikusitako inguruabar aringarri eta astungarriak hartuko dira kontuan.

2. Honakoak dira inguruabar astungarriak:

a) Arau-haustea behin baino gehiagotan egin den edo egiteko asmorik izan den.

b) Berrerori den, hau da, urtebetean eite bereko arau-hauste bat baino gehiago egin den, ebazpen irmo batek hala deklaraturata.

c) Oro har, kontsumitzaileei eragin izatea 50.000 euro baino gehiagoko kalte edo galera.

d) Merkatuan arau-hausteak garrantzizko lekua izatea.

e) Antzemandako irregulartasunak zuzentzeko administrazioak eginiko ohartarazpen edo errekerimenduak ez betetzea.

3. Honakoak dira inguruabar aringarriak:

Arau-haustea ekarri duten irregulartasunak arretaz zuzendu izatea, aktiboki lagunduz kalteak saihesteko edo gutxitzeko edo antzeko beste edozein jokabide espontaneoki antzematea, administrazioaren edozein errekerimendu edo ohartarazpen baino lehen, edo, kasua bada, ebazpen proposamena baino lehen.

Zehapen administratiboa arindu ahalko da espedientean ziurtatzen denean, zehapena bide administratiboan irmoa izan aurretik, kalteturiko pertsonen ordain egokia eman zaiela jasandako kalteengatik, betiere intoxikaziorik, lesiorik, gaixotasunik edo heriotzarik gertatzen ez denen eta delitu-zantzu arrazoizkorik ez dagoenean.

4. Inguruabar astungarri edo aringarri hauek ez dira aplikatuko lege honetan arau-haustea izateko arrazoietan sarturik daudenean edo arau-haustearen larritasuna sailkatzeko kontuan hartu direnean.

39. artikulua. Isunen tarteak.

A) Isunaren gradua erabakitzeke, betiere haren larritasunaren arabera, hura bi tartetan zatituko da: behekoa eta goikoa, biak hedadura berekoak. Hori oinarri harturik, inguruabarren arabera, honako arauak aplikatuko dira:

1.a Egintzan inguruabar aringarri bat bakarria izan baldin bada, beheko tarte aplikatuko da. Inguruabar bat baino gehiago izan baldin bada, beheko tarte horretako gutxieneko kopurua; kasu oso berezietan, larritasun maila baxuagoko hurrengo zehapen-esparruaren arabera zehapena ezarri ahalko da.

2.a Egintzan inguruabar astungarri bat bakarria izan baldin bada, goiko tarte aplikatuko da. Inguruabar bat baino gehiago edo inguruabar oso kualifikatu bat izan badira, goiko tarte horretako gehieneko kopurua aplikatu ahalko da.

3.a Inguruabar aringarri nahiz astungarriak izan ez bada, zehapena ezarri behar duen organoak, arau-haustearen gainerako inguruabarrak kontuan hartuta, beheko tarte erabiliko du.

4.a Inguruabar aringarriak eta astungarriak batera gertatzen badira, zehapena ezarri behar duen organoak batera baloratuko ditu, eta arau-hausteak larritasunaren arabera duen sailkapeneko gutxienetik gehienera bitarte ezarri ahalko du zehapena.

B) Kasuan kasu jarri beharreko isuna zehazteko, lege ezarritako gutxienezko jaitsi gabe ere, arau-hauslearen egoera ekonomikoa hartu ahalko da kontuan.

40. artikulua. Preskripzioa.

1. Foru lege honetan aurreikusitako arau-hausteak hurrengo epeak iragan direnean preskribituko dira: arau-hauste oso larriak bost urte iraganda preskribituko dira, larriak bi urte iraganda eta arinak urtebete iraganda.

Preskripzio epea arau-haustea egiten deneko egunean hasiko da zenbatzen. Horretarako ondorengo arau hauek hartuko dira kontuan:

a) Arau-haustea noiz egin den ezartzeko honakoak hartuko dira: jarduera bukatzen den eguna edo arau-haustea guztiz gauzatzeko egin den azken egintzaren eguna.

b) Arau-hauste jarraituaren kasuan, epea hartan sarturiko egintza tipikoetako azkena egin zen egunetik hasiko da kontantzen.

Preskripzio epea eteteari dagokionean, zehapen prozedura hasten denean etenen da, betiere uestezko arau-hauslea jakitun dela.

2. Foru lege honetan jasotako zehapenek hurrengo epeak iragan direnean preskribituko dute: arau-hauste oso larriak bost urte iraganda preskribituko dira, larriak bi urte iraganda eta arinak urtebete iraganda.

Zehatzeko ebazpena irmo bihurtu den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen zehapenaren preskripzio epea.

Preskripzio epea eteteari dagokionean, exekuzio prozedura hasten denean etenen da, betiere zehatua jakitun dela.

41. artikulua. Legezketasuna berrezartzeko bestelako neurriak.

1. Lege honetan aurreikusitako zehapenak ezartzeak mugak ekarriko ditu administrazioarekin kontratatzeke administrazio publikoen kontratuei buruzko legeek ezarritako kasu eta baldintzetan.

2. Ezartzen diren zehapenak ukatu gabe, kontsumoaren arloan eskumenak dituen kontseilariak Gobernu Kontseiluari proposatu ahalko dio, arau-hauste oso larrietarako, erantzuleak aitortuak edo eskatuak dauzkan laguntza publiko guztiak kentzeko, deuseztatzeko edo guztiz nahiz aldi baterako eteteke. Halaber, laguntza publikoa estatu mailakoa bada, Gobernu Kontseiluak, estatuko legee jarraituz, Ministro Kontseiluari egin ahalko dio proposamena. Gobernu Kontseiluak eta Ministro Kontseiluak, nork bere esparruan, kasuan kasuko inguruabarren arabera erabakiko dute.

3. Behar ez den gainprezio edo beste edozein kopuru kobratzearen ondorioz eginiko edozein arau-hauste izanez gero, behar ez bezala kobratu-riko kopurua itzuli beharko zaio administrazioari, kontsumitzaileak hori eskatuz gero. Dirua itzultzeko betebeharra duenak ez badu itzultzen, bide judizialari ekin ahalko zaio.

4. Arau-hauste administratiboa izan daitekeen jokabideak kalteturiko partikularrak, halaber, nozituriko kalteak zehatzeko eskatu ahalko du zehapen prozeduran. Ondorio horietarako, administrazioa inhibititu eginen da jasota geratu denean, prozedura baino lehen edo prozedurak dirauen bitartean, gatazkako aldeetako batek kasuko ekin-tza judiziala abiatu duela bere eskubideak debendatzeko.

42. artikulua. Zehapenak barkatzea.

1. Zehapen irmoak barkatu ahalko dira, organo eskudunak nahierara hartutako erabakiaren bitartez, ondoko inguruabarren bat gertatzen denean:

a) Arau-hausleak arau-haustearekin kalteturiko kontsumitzailea asebetu duenean.

b) Arau-haustea egin duen enpresa kontsumoaren arloko gatazkei epaitegitik kanpoko konponbidea emateko oro har ezarrita dauden arbitraje prozeduretan ari denean.

c) Zehaturiko arau-haustean berrerortzea antzeman ez denean.

d) Legez kanpoko onurarik lortu ez denean, salbu eta artikuluko honetako 2. idatz-zatian xedatutakoan.

e) Arau-haustea egin duen enpresa beste akzionista, jabe edo kudeatzaile baten menpe egotera iragan denean arau-haustea gertatu ondoren, edo lehiaketa prozedura batean ari denean, edo zehapena bere terminoetan betetzea berdintasunaren aurkako edo interes orokorren, arau-hausteak ukitutakoen edo hirugarrenen kaltegarri gertatzea eragiten duten beste inguruabar batzuk badaudenean.

2. Barkatzeak eragina izan dezake isunetan –zenbatekoren hiru laurdenetara bitarte– eta gainerako zehapenetan –zati batean nahiz guztiz– salbu eta legez kanpoko onuraren konfiskazioaren kasuan, zeina gauzatu beharko baita adostutako barkatzeak eragina izan dezan.

3. Prozedura zehatuaren eskariz abiatuko da. Kasuko eskaria organo eskudunari zuzenduko zaio, zehapena irmo bihurtzen denetik hiru hileko epean ebatz dezan. Aipatu irmotasuna baino lehenago aurkeztu ahalko da, baldin eta, aldi berean, zehapenaren aurkako errekurtsioak ez jartzeko borondatea adierazten bada. Eskaria egin eta hiru hil iragan badira ebazpen espresurik eman gabe, ezetsi dela ulertu ahalko da.

4. Prozedura honen tramitazioak zehapenaren preskripzio epeak etenen ditu.

5. Barkatzearen onuradunak beste arau-hauste larri edo oso larri batzuk egiten baditu edo kontsumitzaileei eragindako kalteak efektiboki ordaintzen ez baditu, barkatzea, interesdunari entzunaldia eman ondoren, atzera bota beharko da, hura eman eta hurrengo hiru urteetan.

Atzera botatzeak berekin ekarriko du zehapena guztiz exekutatzea, eta iragan den epea ez da zenbatetsiko zehapenaren preskripzioaren ondorioetarako. Hala eta guztiz ere, barkatu zen zehapenari dagokion arau-haustea kontuan hartuko da

etorkizuneko arau-hausteetan, haiei dagokien zehapena zehazteko.

Xedapen gehigarri bakarra

Foru lege honetako IV. tituluan aurreikusitako ondorioetarako, Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko uztailaren 19ko 26/1984 Lege Orokorretarako igorpenak, arau-hausteen tipifikazioari eta sailkapenari eta zehapenen graduazioari buruzko beste xedapen batzuetan daudenak, foru lege honetako artikuluetara egin direla ulertuko da.

Xedapen indargabetzailea bakarra

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko lehenagoko arau guztiak.

Azken xedapenetan lehenengoa

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena

Gobernu kontseiluari dagokio diru-zehapenetan ezarritako zenbatekoak aldizka berrikustea eta gaurkotzea; horretarako, kontsumorako prezioen indizearen aldaketak hartuko dira kontuan.

Azken xedapenetan hirugarrena

Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak erregelamendu bat egiten du kontsumitzaile eta erabiltzaileen babes arautzeko, etxebizitzak salerosteko eta errentan emateko garaietan eman beharreko informazioari dagokionez.

Azken xedapenetan laugarrena

Kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko eskumenez baliatzea bateragarria eta osagarria izanen da zerbitzu publikoen edo interes orokorretarako zerbitzuen erabiltzaileak babesteko Estatuko nahiz Nafarroako ordenamenduan ezarritakoarekin.

Azken xedapenetan bosgarrena

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeit egunera.

ARTIKULUEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da testu berria:

“1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatean kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak defendatzea.

Zioak: Ez dago zertan artikuluen testuan errepikatu lege proiektu honek dauzkan oinarriak, zioen azalpenean araututa baitaude.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. “..kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak defendatzea...” hitzen ordeztu, “kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta bidezko interesen babesa bermatzea...” hitzak jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa eta defentsa, Espainiako Konstituzioaren 51. artikulua ezartzen duenez, politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidarietako bat da. Administrazioaren zeregina da eskubide eta bidezko interesen babes efektiboaren berme-emailea izatea.

Ikuspuntu semantikotik “babesaren” formula egokiagoa da.

3. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. artikulua ordeztu eta testu hau jartzea proposatzen da:

“3. artikulua. Lehentasunezko babes egoera.

1. Gutxiagotasun, mendekotasun, defentsagabezia edo babesgabetasun egoeran dauden kontsumitzaile eta erabiltzaile taldeei babes berezia emanen diete Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, lege honetan xedatuaren esparruan, eta bereziki haurrei, nerabeei, zaharrei, haurdun dauden emakumeei, familia-zama eta dirusarrera apalak izan eta bakarrik dauden gizon eta emakumeei, marjinazio edo indarkeria prozesuek kaltetutako gizon eta emakumeei, gaixoei, minusbaliatuei, etorkinei eta ekonomia- nahiz gizarte-talde ahulenei.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek arreta berezia jarriko dute erabilera nahiz kontsumo arrunt eta hedatua duten produktu eta zerbitzuei dagokienez.”

Zioak: Egokiagoa da lehentasunezko babes egoerak definitzearen ikuspuntutik.

4. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. 4. artikulua ordeztu eta testu hau jartzea proposatzen da:

“4 artikulua. Administrazio publikoen jarduerak.

1. Aurreko artikuluan xedatuaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, zein bere eskumeneko esparruan, neurri eragingarriak baliatuta bermatuko dute kontsumitzaile eta erabiltzaileen babes eta defentsa.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek berriazko zaintza eta laguntza emanen dute, legedia indardunarekin bat, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa eta babesean honda-

mendi nahiz larrialdi egoeretan eta erkidegoarentzat funtsezkoak diren zerbitzuak eta premia biziko ondasunak hornitu edo banatzeko eragozpen larria dagoenetan.

3. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa bermatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek kontsumo arloko elkarteak sustatuko dituzte, kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko oinarritzko tresna diren aldetik.”

Zioak: Egokiagoa da lehentasunezko babes egoerak definitzearen ikuspuntutik.

5. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen luke:

“1. Nafarroako Gobernuari dagokio, Nafarroako Parlamentuak erabakia hartu ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko kontsumo-politikaren plangintza orokorra egitea eta foru lege hau garatzeko balioko duten erregelamenduak aldarrikatzea, bai eta batera jarduteko programen eta toki entitateekin koordinatzeko tresnen sustapena ere.”

Zioak: Parlamentuari jakinaraztea, Nafarroako herritarren borondatearen adierazpen goren den aldetik, foru erkidegoko kontsumo-politikaren plangintza orokorra.

6. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluari beste idatz-zati bat, 4.a, gehitzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun idatz-zatia:

“4. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa bermatzeko, administrazio publikoek kontsumo arloko elkarteak sustatuko dituzte, kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko oinarritzko tresna diren aldetik.”

Zioak: Asoziazionismoa sustatzea, ez soilik kontsumitzaileei informazioa emateko bulegoetatik.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

7. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua ordeztzeko zuzenketa. 5. artikulua-
ren ordeztu hau jartzea proposatzen da:

“5. artikulua. Kontsumitzaileen eskubideak.

Ondokoak dira kontsumitzaileen eskubidea, lege honen aplikazio esparruan.

1. Babes efektiboa osasunean, ingurumenean edo kontsumitzaileen segurtasunean eragina izan dezaketen arriskuak edo kalteak egitez edo ez egitez sortzen dituzten jardueren aurka.

2. Bidezko interes ekonomiko eta sozialak babesturik, aitorturik eta gauzaturik izatea.

3. Lege honek babesten dituen ondasun, esku-bide edo interesetan sorturiko kalte-galerengatik ordaina eta konponbide efektiboa.

4. Kontsumitzaileen erakundeak eta elkarteak eratzea, haien bitartez ondokoak gauzatzeko:

a) Haiengan eragin zuzena duten Nafarroako erakunde publikoen jardueretan parte hartzea.

b) Kontsultan aditzea haien interesekoak izan daitezkeen edo haiengan eragin ditzaketen xedapen orokorrak prestatzerakoan.

c) Lege honetan aitorturiko eta babesturiko eskubideen ordezkartza.

5. Eragiketei eta erabil edo kontsumi daitezkeen ondasun eta zerbitzuei buruzko informazio egiazkoa, nahikoa, ulergarria, argia eta zentzuzkoa, arau indardunei jarraituz.

6. Kontsumitzaileak diren aldetik haiengan eragina izan dezaketen gai guztiei buruzko hezkuntza eta prestakuntza.

7. Babes berezia kontsumitzaileak, banaka nahiz kolektibo gisa, egon daitezkeen gutxiagotasun, mendekotasun edo babesgabetasun egoeretan.”

Zioak: Egokiagoa da lehentasunezko babes egoerak definitzearen ikuspuntutik.

8. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluari f) letra berria, Kontsumitzaileen oinarritzko eskubideak, gehitzeko zuzenketa. Hauxe litzateke testua:

“f) Errespetuzko tratua eta egiazkotasuna kontsumitzaileek eta erabiltzaileek kontsumo-produktuen hornitzaileekin dauzkaten harremanetan”

Zioak: Oinarritzko eskubideen aitortzan eta zaintzan kontsumitzaileekiko errespetua eta haien eta hornitzaileen arteko harremanen egiazkotasuna sartu behar dira.

9. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluari f) letra gehitzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun letra:

“f) Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea lege honek eta ordenamendu juridikoaren gainerako legeek ezartzen dutenari jarraituz”

Zioak: Kontsumitzaileen oinarritzko eskubide gisa jasotzea bi hizkuntza ofizialen erabilera.

**7. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

10. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. 7. artikulua izenburuaren ordean honako hau proposatzen da:

“7. artikulua. Produktu, ondasun eta zerbitzuen segurtasuna”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

11. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. 7. artikuluko 1. idatz-zatian ondoko testua gehitzea proposatzen dugu: “..ez dute kontsumitzaileen osasun

eta segurtasunerako arriskurik izanen, ezta ingurumenerako ere, salbu eta...”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

12. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikuluko 1. idatz-zatia, Printzipio orokorrak, aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen luke:

“1. Merkaturatutako produktu... hori guztia osasunaren eta pertsonen segurtasunaren babesa errespetatuz.”

Zioak: Ez da zuzena lege batean “pertsonen osasunaren eta segurtasunaren babes maila altuari eutsiko zaio” terminoak erabiltzea. Pertsonen osasuna guztiz babestu behar da eta, gainera, definizioa abstraktua da eta hari buruz interpretazio ugari egin litezke.

13. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa. 7. artikuluari beste bi idatz-zati gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“3. Produktu bat segurua dela joko da estatuko arauetan produktuen segurtasun orokorrari buruz ezarritakoa betetzen baldin badu.

4. Segurtasun maila handiagoak lortzeko aukera edo arrisku maila txikiagoko produktuak lortzeko ez da nahiko izanen produktu bat ez-seguru edo arriskutsutzat hartzeko”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

**8. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

14. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua aldatzeko zuzenketa. 8. artikulua izenburuaren ordean honako hau proposatzen da:

“8. artikulua. Administrazio publikoen zaintza, kontrol eta ikuskatze jarduketak.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

15. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8.1. artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa. 8.1 artikuluan “..behar bezalako zaintza, kontrola eta ikuskapena...” gehitu behar da.

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

16. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa. 9. artikulua-
ren ordezkari honako testu hau jartzea proposatzen
da:

“9. artikulua. Zaintza bereziko neurriak.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, kasuan kasu ezar litezkeen neurriak ezertan kendu gabe, zaintza berezi eta iraunkorreko neurriak hartuko dituzte ondokoei buruzko araudia betetzen dela bermatzeko:

a) Elikagaien eta edarien higiegi nahiz osasun arloko kalitatea, bai eta horiek prestatu, biltegiatzen edo saltzen diren establezimenduetakoa ere.

b) Produktu toxikoen eta substantzia arriskuetsuen jatorria, banaketa eta erabilera.

c) Etxebizitzaren eta etxebizitzetako erkidegoz bitzuen segurtasuna eta bizigarritasuna, hala nola argindarrarena, gasarena, urarena, saneamenduarena eta igogailuarena, bai eta suteen prebentzioa eta itzaltzea ere.

d) Pertsona nahiz salgaien garraio bide publikoen –eta bereziki eskola-garraioaren– segurtasuna eta kalitatea.

e) Aplikatzekoa den araudiak establezimendu publikotzat jotzen dituen segurtasuna, bai eta ikastetxeena eta erkidegoak erabili eta gozatzeko gainontzeko lekuen ere.

f) Ehungintzako produktuen osaera, erregarritasun-graduak, toxikotasuna eta erabilera arauak, bai eta haurrentzako produktuen segurtasuna ere.

g) Ezgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna, arkitektura, hirigintza, garraio eta komunikazioetan.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

17. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..egin daitezten sustatuko du...” dioen lekuan “eginen direla bermatuko du” esan behar du.

Zioak: Gure ustez, bere eskumenen esparruan, Nafarroako Gobernuak aldizka ikuskapen-, azterketa- eta informazio-kanpainak egin behar ditu.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

18. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa. 10. artikulua-
ren ordezkari honako testu hau jartzea proposatzen
da:

“10. artikulua. Produktuen segurtasunaren arloko erantzukizuna.

1. Ekoizleek produktu seguruak soilik merkaturatzeko eta segurtasun hori eskaera egiten dion agintearen aurrean frogatzeko betebeharra dute.

2. Ekoizleek, zeinek bere jardueraren mugen barruan, kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa eman behar diete, bitarteko egokiak baliatuta, abisatu ezean berehalakoan hauteman ezin diren eta produktuen erabilera arrunt edo aurreikusteko moduko batetik heltzen ahal diren arriskuei buruz, kontuan harturik produktuen izaera, iraupen-baldintzak eta zein pertsonari zuzendurik dauden. Informazio hori emateak ez du salbuetsiko agindu honetan ezarritako gainontzeko betebeharrak betetzetik.

3. Ekoizleek, zeinek bere jardueraren mugetan eta produktuen ezaugarrien arabera, ondokoak bete beharko dituzte:

a) Produktuek izan ditzaketen arriskuei buruz informatuta egon eta banatzaileei behar bezala informatu. Hartara, arriskua egon litekeelako ondorioa eragin dezaketen erreklamazioak erregistratu eta aztertuko dituzte, eta, kasua bada, merkaturatutako produktuen laginketa bidezko probak egiten dituzte edo beste sistema egoki batzuk ezarriko dituzte. Betebehar hori betetzeko modua erregelamendu berariazko batek ezartzen baldin badu, erregelamendu horretan ezarritakoa beteko da.

b) Merkaturan kontsumitzailearentzat segurtasunaren betebehar orokorrarekin bateraezinez diren arriskuak dituzten produktuak jarri dituztela ohartzen badira edo hori hala delako zantzu nahiko badute, arriskuak ekiditeko neurri egokiak hartuko dituzte –nahiz eta administrazio organo eskudunek halakorik ez eskatu–, besteak beste kontsumitzaileei informatzea, beharrezkoa bada, ohar berezien bidez, produktuak merkatutik kentzea edo kontsumitzaileei produktuak hartzea.

c) Enpresaren identifikazio datuak eta produktuen erreferentziari edo, kasua bada, fabrikazio loteari buruzkoak adierazi, produktuan edo ontziki-an, salbu eta informazio hori ez jartzea justifikatuta dagoen kasuetan. Fabrikazio lotearekin adierazten diren datuak hiru urtez gorde beharko ditu ekoizleak produktu guztietarako. Iraungipen-data edo gomendatutako kontsumo-data daramaten produktuetan, epe hori urtebetera murriztu ahal izanen da, eta data horretatik aitzina urtebetez soilik gorde datu horiek.

4. Banatzaileek produktu seguruak soilik banatzeko betebeharra dute; hortaz, ez dute produkturik banatuko baldin eta, duten informazioaren arabera eta profesionalak diren aldetik, betebehar hori betetzen ez dela badakite edo jakin beharko balute.

5. Banatzaileek arduraz jardunen dute, aplikatzekoak diren segurtasun-baldintzak betetzen laguntzeko, bereziki produktuak biltegitatu, garraiatu eta erakusgai jartzerakoan.

6. Banatzaileek, zeinek bere jardueraren mugen barruan, merkaturatuako produktuen segurtasuna zaintzen parte hartuko dute, eta zehazki:

a) Arriskuei buruzko informazioa emanen diete administrazio organo eskudunei eta ekoizleei arriskuren baten berri dutenean.

b) Produktuen izakinak agortu ondoko hiru urteko epean gordeko dute produktuen jatorria ezagutzeko beharrezkoa den dokumentazioa, eta zehazki hornitzaileen nortasunari buruzkoa, eta,

txikizkako merkataria ez badira, haien destinoa, eta, kasua bad, dokumentazio hori emanen dioten eskaria egiten duten agintariei.

c) Arriskuak ekidite aldera ekoizleek eta administrazio organo eskudunek abiarazitako jarduketan eraginkortasunez lagunduko dute.

d) Kontsumitzaileei ondasun edo zerbitzuak erabiltzearen arriskuei buruz informatuko diete, ekoizleek emandako informazioarekin bat.

7. Ekoizle eta banatzaileek kreditatu beharko dute Nafarroako lurraldean merkaturatutako produktu, ondasun eta zerbitzuek nahitaez aplikatu beharreko ingurumen-araudia betetzen dutela, eta, bereziki, beren gain hartu dituztela ontziak eta enbalajeak eta ontzien hondakinak lehengoratzeko kostuak edo haien balorizazio-kostua ordaindu dutela. Balorizazioaren kasuan, banatzaileek espresuki kreditatu beharko dute kostu hori beren gain hartu dutela.

8. Merkaturatutako produktu batek bete beharreko segurtasun-betekizunekin bateraezina den arriskua duelako susmorik edo berririk baldin badute ekoizle eta banatzaileek berehala jakinaraziko diete kontsumo arloko departamentu eskudunari. Administrazioekin lankidetzan aritu beharko dute, orobat, banatu dituzten produktuek izan ditzaketen arriskuak ekidite aldera administrazioek abiarazitako jarduketa guztietan, hala materialetan nola juridikoetan, eta, kasua bada, behar den informazio guztia emanen dute –nahiz eta industriako sekretuak babestua egon–, eta jarduketaren kostuak bere gain hartuko dituzte.

9. Ekoizle edo banatzaileak beste autonomia erkidego batean baldin badauka sozietatearen helbidea eta produktua erkidego bat baino gehigotan banatu baldin bada, arestiko idatz-zatian aipatzen den jakinarazpena estatuko araudian xedatuarekin bat egiten da.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

19. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikuluko 2. idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa.

“jakinarazi beharko ditu” hitzen ondotik hauxe gehitzea proposatzen da: “..argiro..”

Zioak: 7. artikuluko 2. idatz-zatian jasotakoaren bidetik.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

20. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa. 11. artikuluko izenburuaren ordean testu hau jartzea proposatzen da:

“11. artikulua. Kontsumitzaileen eskubide eta interesen babesa.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

21. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. 11. artikuluari beste letra batzuk gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“k) Ondasunak erosi edo zerbitzua eman aurreko aurrekontua egin dadin, baldin eta ezin bada ezarri horien prezioa kontratazioaren unean.

Jarduera edo zerbitzu profesionalak ematen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek aurrekontu bat egin beharra dute, zeinetan zehaztuko diren, argi eta garbi zehaztu ere, zerbitzua ematen duena identifikatzeko datuak, aurrekontuaren indarraldia eta zerbitzuaren kostu osoa, kontzeptu guztiak barne, errekarquak eta aplikatzekoak diren zergak.

l) Eskaintza, sustapen nahiz publizitatean sartzen diren datuak, ezaugarriak eta baldintzak eman dakizkion exijitzea. Halere, kontratuak klausula onuragarriagorik baldin badu, lehentasuna izanen du eskaintza, sustapen nahiz publizitatearen aldean.

m) Merkatuan salgai jarritako ondasun eta zerbitzuen funtsezko ezaugarriei buruzko informazio osoa, egiazkoa eta gardena jasotzekoa.

n) Kasuan kasuko araudiak interes orokorreko zerbitzuei edo kontsumoko ondasunen produkzio eta fabrikazioari ezarritako kalitate-mailak betetzen direla exijitzeko.

ñ) Legez nahiz erregelamendu bidez ezarritako gehieneko prezioak kontsumitzailearen kaltetan hausten dituzten kontratu bidezko hitzarmenak aintzat har ez daitezen.

o) Interes orokorreko zerbitzuen hornikuntza eten ez dadin, salbu eta legedia indardunean ezarritako kasuetan.

p) Etxebizitza salerostean edo higiezinaren esku-bideak eskuratzean aurreratutako kopuruak edo bestelako edozein aurrerakin ordaintzea exiji ez dakien, legez ezarritako modu eta bermearekin ez bada.

q) Gastu, kostu, hobekuntza edo zeinahi prezio-igoerarik jasanarazi ez dakien, behar bezala onartu ez dituzten prestazioen truke edo kontsumitzaileek ez onartzeko egiazko aukera izan ez duten ondasun edo zerbitzuen truke.

r) Ondasun iraunkorrak erostean berme-agiri bat eman dakien, baldin eta berme hori aplikatzeko den araudiaren arabera exijitzeko modukoa bada.

s) Ezeztatze-agiri bat eman dakien eta kontratua ezeztatu eta atzera egitekoa, araudi indardunak ezarritako moduan.

t) Banan-banan negoziatu ez diren kontratazio-baldintza orokorretan edo klausuletan jasotako betebeharrak betetzea exijitu ez dakien, baldin eta horiek ez badira kontratuan sartu.

u) Ondasun eta zerbitzuen –zerbitzu profesionalak barne– hornitzaileek erreklamazio-orrien ale baimendu bat eman diezaieten, norberak eskatuz gero; behar bezala iragarri beharko da, araudi indardunak ezarritako moduan.

v) Abonatuta dauden zerbitzuak moztu, bertan behera utzi edo etenez gero kalte-ordaina eman dakien, legedia indardunean ezarritako moduan.

w) Kontratuetan ez daitezzen sar banan-banan negoziatu gabeko klausula edo hizpaketak, kontsumitzailearen kalterako direnak, fede onaren aurkakoak, kontratutik heldu diren aldean eskubide eta betebeharren arteko desoreka handia eragin dezaketanak.

x) Ondasunak hornitu edo zerbitzuak emateko kontratuetan baja emateko eskubidea baliatzean ez daitezzen murrizketa neurrigabeak ezarri.

y) Berme-gordailuak exijitu ez dakizkien zerbitzu publikoak eta interes orokorrekoak ematean, ez bada araudi indardunean ezarritako baldintzetan.

2. Eskubide horiek baliatzeak ez ditu eragotziko kasuan kasuko sektoreko araudian ezarritako kontsumitzaileen eskubideak”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

22. ZUZENKETA**ASKOTARIKOA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

“11.a) artikulua. Produktuen etiketatze eta eduki zuzena, bai eta pisuaren eta neurriaren zehaztasuna eta zerbitzu-emate zuzena ere.”

Zioak: Badirudi egokia dela produktuen etiketatze zuzenari eustea haien edukuari dagokienez; izan ere, horixe da kontsumo-zerbitzuaren eginkizun nagusietako bat.

23. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11. artikuluko i) letra aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“i) Ondasun eta zerbitzuen prestaketari, banaketari, informazioari, publizitateari buruzko informazioari, eskaintzen sustapenari eta salmentari buruzko xedapen indardunak efektiboki aplikatzea eta zehazki betetzea; berariaz, ondokoak:

- Legez kontrako publizitatea debekatzea.
- Bortxazko metodoak, metodo engainagarriak edo erasotzaileak eta bezeroak antzemateko metodoak kentzea, metodo horiek kontsumitzaileek eta erabiltzaileek duten hautatzeko askatasuna nola edo hala murrizten badute.

– Gehiegizko klausulak edo fede onaren aurka eta kontraprestazioen orekaren aurka doazen klausulak kontratazioko baldintza orokorretatik kentzea.”

Zioak: Proposaturiko testua hobetu eta osatzea.

24. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11. artikuluari k) letra gehitzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun letra:

“k) Prestazio jarraituko zerbitzu publikoen hornidura eten dadila debekatzea, etetearen funts gisa erabil litekeen arrazoiari konponbidea emateko behar adinako epea ematen dion jakinarazpena kontsumitzaileak jaso izana modu fede-emaitza

adierazi gabe, eta kasuan kasu bidezkoak izan daitezkeen baimen administratibo edo judizialak eduki gabe. Debeku horrek bere baitan biltzen ditu, berariaz, edateko uraren, elektrizitatearen, telefonoaren eta gasaren zerbitzuak, eta ez da loturik egonen matxurengatik, konponketengatik edo antzekoengatik horniduran gertatzen diren etete orokorrei.”

Zioak: Idatz-zatia osatzea, kontsumitzaileari balizko arbitrariotasunak saihesteko bermeak emanaz.

25. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu berri bat, 11. bis, gehitzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun artikulua:

“11. bis. Kexa eta erreklamazioetarako liburu bat edukitzeko betebeharra, eta haiek tramitatu eta erantzutetako ere.

Nafarroan ondasunak merkaturatu edo zerbitzuak ematen dituzten establezimendu edo zentro guztietan, kexa eta erreklamazioetarako liburu bat jarri behar da kontsumitzaileen eskura, behar bezala zenbakitua eta Nafarroako administrazioak zigitatua, bai eta hura badagoela iragartzen duten kartelak ere, erregelamenduz ezarritako moduan.”

Zioak: Kexa eta erreklamazioetarako liburu bat bezeroen esku edukitzeko betebeharra berrestea.

12. ARTIKULUARI**AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****26. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..eta horretarako neurri egokiak hartuko dituzte..” dioen lekuan “eta horretarako behar diren neurriak hartuko dituzte” esan behar du.

Zioak: Administrazioaren betebeharrari buruzko erredakzio inperatiboagoa erabiltzea.

27. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..eskatuko dute...” dioen lekuan “..exijituko dute...” esan behar du.

Zioak: Gure ustez, Nafarroako Gobernuak exijitu behar du, eta ez soilik eskatu, onusteari eta prestazioen oreka bidezkoari aurka egiten dien edozein klausula kentzeko.

28. ZUZENKETA**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikuluko 2. idatz-zatiari beste lerrokada bat, Kontratuen edukia eta kontratatzeko baldintza orokorrak izenekoa, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Horri dagokionez, ez dute kontratu izaerarik izanen kontsumitzaileen oinarritzko eskubideen aurkako klausulak, eskubide horiei buruz nahasmena sortzen dutenak edo beren edukian edo forman ulertzea edo ezagutzea zailtzeko moduan idatzita daudenak”

Zioak: Kontsumitzaile eta erabiltzaileek topatu ohi duten arazoetako bat letra txikitik heldu dena da; izan ere, akordio edo baldintzei buruzko klausula edo informazioaren forma hartuta, kontsumitzaileen eskubideen aurkako eraso bat da.

29. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

12. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. Ondasunen iraunkorren bermea.

12. bis) artikulua berri bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“1. Ondasun iraunkorrei dagokienez, administrazio publiko eskudunek, arau indardunei jarraituz, ondokoak lortzeko behar diren neurriak hartuko dituzte:

a) Aipatu ondasunen bermeak barne hartzea erositako ondasuna konpontzea eta, kasua bada, hura ordeztzea haren berdina den beste batekin, edo, bestela, ordaindutakoa itzultzea.

b) Ondasun iraunkorren konponketak eta, kasua bada, ordezteak ez izatea inongo gasturik kontsumitzailearen kontura.

c) Kontsumitzaileari berme-agiri bat ematea, non ondasunaren identifikazioa, berme-emailea, iraupen-epea, bermearen titularrak eta titular horren eskubideak jasoko diren.

d) Ondasun iraunkorren konponketa zerbitzua ematen duenak kontsumitzaileari eskuratzea egiten dituen konponketen berme-agiria, non jasoko baitira konponketaren xedea, berme-emailea, bermearen titularrak eta titular horren eskubideak, eta bermearen epea.

e) Bermearen epea etetea berme horren babesean eginiko konponketek irauten duten denboran eta bermea berriz ematea eskuratutako ondasunaren ordeztasun beste bat ematen den kasuetan.

f) Bermeak irauten duen epean kontsumitzaileei egin zaizkien balizko kalteak edo galerak konpentsatzea, aplikatzekoak diren arauei jarraituz.

2. Aipatu bermeak ez dira aplikatuko kontsumitzaileak edo erabiltzaileak ondasun iraunkorra behar ez bezala manipulatu duenean, betiere kasuan kasuko ondasunaren erabilera orokorrari buruzko arauak jarraituz”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

**13. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****30. ZUZENKETA****ASKOTARIKOA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

13. artikuluari lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

13. artikulua. Lerrokada berria. “Produktuen, ondasunen edo zerbitzuen publizitate jarduerak, haien ezaugarriengatik eta erosteko baldintzengatik, nahasbidea ekar dezaketela antzematen denean, publizitateari buruzko legeen esparruari erreparatuta, Nafarroako Gobernuak enpresa arau-hausleari eskatuko dio legez kontrako publizitate eten edo zuzen dezan. Hala ez bada, zehapen neurriak hartuko dira”

Zioak: Badirudi jarduketaren tresna batzuk ezarri behar direla legez kontrako publizitate jardueren kasuan, behar diren tresnak ezarri halakoetan administrazioak kontsumitzaileen eskubideak zaindatzeko jardun dezan.

31. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

13. artikuluari beste lerrokada bat, Publizitate jarduera izenburukoa, gehitzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“Produktu baten ezaugarri teknikoak, prezioa, xedeak edo onurak publizitate-elementu gisa erabiltzeak berekin ekarriko du publizitate horretarako erabilitako euskarrien edukiak kontratu-agiriaren izaera hartzea”

Zioak: Legeak ezin du bidea eman publizitatea erabil dadin kontsumitzailearen desioa harrapatzeko gezurrezko gako gisa. Publizitateak koherentea eta egiazkoa izan behar du transmititzen dituen edukiekin eta eduki horiek kontratu-agiriaren elementuak izan behar dute.

**14. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

32. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

14. artikuluko, Onartzeko eskubidearen erreserba eta bereizkeriarik ezaren printzipioa, 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen luke:

“1. Jendearentzat irekiak izan eta bezeroak onartzeko... ezin izanen dira zehaztugabeak, bereizkeriazkoak, arrazistak, arbitrarioak edo establezimenduaren izaera eta jarduerarako desegokiak izan.”

Zioak: Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eta zerbitzu edo produktuak ematen dituzten establezimenduen arteko harremanetan nabarmentzen den arazoetako bat biztanleriaren zati batekiko arrazarengatiko bazterkeria da. Hori dela eta, berariaz bildu behar da testu honetan.

33. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

II. bis kapitulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“II. bis kapitulua. Kalteak konpontzeko eta ordaintzeko eskubidea.

Artikulu berria. Kalteak konpontzea.

Kontsumitzaileek eskubidea dute ondasun eta zerbitzuen kontsumoan gertaturiko kalte edo galerrak direla-eta kalte-ordaina eman dakien, salbu eta kaltea bere errua ez beste inorena edo erantzukizun zibila duten pertsonena bada.

Artikulu berria. Kalteak konpontzeko eskubidea sustatzea.

Kontsumitzaileen defentsarako organoek kontsumitzaileei kalteak ordaintzea eta konpontzea erraztuko eta sustatuko duten neurriak hartuko dituzte, horien barne direla gatazkei konponbidea emateko borondatezko prozedurak.

Artikulu berria. Arbitrajea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, lege indardunek Kontsumoko Arbitraje Sistema sustatzeko, kudeatzeko eta garatzeko esleitzen dizkien eginkizunak baliatuko dituzte, eta horretarako behar diren bitarteko materialak eta giza bitartekoak esleituko dizkiote sistema horri.

2. Nafarroako Gobernuak behar diren prozedurak ezarriko ditu arbitrajea zabaltze aldera kontsumo arloko gatazketan konponbidea arintzeko bitarteko gisa.

3. Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, bultzatuko dute beren menpeko entitate edo enpresa publikoek eta zerbitzu publikoak eta interes orokorrekoak kudeatzen dituzten entitate edo enpresa pribatuak Kontsumoko Arbitraje Sistemari atxiki dakizkion.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

**15. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

34. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

15. artikuluko, Informaziorako eskubidea, 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen luke:

“2. ematen den informazioa behar adinakoa ez denean, hura gaitzustearen printzipioaren arabera integratuko da.”

Zioak: Informazio zehatz hori ez ematea onustez jokatzeko dela jotzea gonbite edo sarbide erraz bat izan daiteke erabiltzaileen kontra erabiltzen den salmenta bat izateko.

35. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

15. artikuluko 1. idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa.

Azpmarraturiko testu hau proposatzen dugu:

15. artikulua. Informazioa hartzeko eskubidea.

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileek eskubidea dute informazio egiazkoa, eraginkorra eta nahikoa jasotzeko kontratazio baldintzei buruz eta eskaintzen zaizkien ondasun edo zerbitzuen funtsezko edo garrantzizko ezaugarriei buruz, haiek zuzen erabil edo kontsumitzeko jarraibideekin eta haiek erabiltzeak edo kontsumitzeak izan ditzakeen arriskuei buruzko oharrekin, hain zuzen ere ondasun edo zerbitzu horiek zentzuz aukeratzeko eta seguru eta nahi duten moduan erabili ahal izateko.

Zioak: Proposaturiko testua hobetu eta osatzea.

36. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

15. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. 15. artikularen ondotik beste artikulua batzuk gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“Artikulu berria. Informazioa babesteko neurriak.

Kapitulu honetan jasotzen den eskubideari babes juridikoa ematearen ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek neurri eraginkorrak hartuko dituzte ondokoetarako:

a) Kontsumitzaileei era guztietako informazioa ematea haiengan eragina duten edo interesatzen zaizkien alderdiei buruz eta, bereziki, etxebizitzaren eraikuntzari buruz.

b) Kontsumitzaileei laguntza ematea merkatuan lehiari dauden eskaintzen artean libreki eta arrazoiz hautatzearen aurka egiten duten publizitate, sustapen edo komunikazio praktika, metodo eta sistemetatik babesteko; betiere, hori ez da eragozpen izan arau indardunak aplikatzeko.

c) Zaintzea adingabeei zuzendutako publizitateak arau indardunetan ezarritako printzipioak eta mugak betetzen dituela.

d) Kontsumitzaileek, beren erakunde edo elkarrekin bitartez, Nafarroako administrazioa titularrak

deneko hedabideetara sarbidea izan dezaten sustatzea eta bideratzea.

e) Nafarroako Gobernu eta toki administrazio titularrak diren hedabideetan, debekatuta egonen da publizitate desleiala, iruzurrezkoa, ezkutukoa edo subliminala, bai eta giza duintasunari edo talde etniko, kultural edo sozialei eraso egiten diena ere.

f) Kontsumitzaileei behar den informazioa ematea Nafarroako enpresek sorturiko ondasunak eta zerbitzuak identifikatu ahal izateko.

Artikulu berria. Informazioa eman beharra.

1. Kontsumitzaileen interesen defentsan, eta arau indardunei jarraituz, ondasunen produkzioaz, merkaturatzeaz, banatzeaz eta saltzeaz nahiz zerbitzuak emateaz arduratzen diren subjektuek haiei, kontratatze prozedurei eta erabileran eta kontsumoan eragina izan dezakeen guztiari buruzko informazio egiazkoa, nahikoa eta ulergarria eskaini beharko dute.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen den informatzeko betebeharra berdin exijitu ahalko da Nafarroako Foru Komunitatean gauzatzen den etxebizitzaren merkaturatzean, kontsumitzaileek ondokoak berariaz, zehazki eta objektiboki ezagut ditzaten: eraikuntza materialen kalitatea eta obran jartzeko sistemak, obra unitateak eta era guztietako zerbitzuen instalazioak, banakakoak zein kolektiboak, eta erabilera, mantentze eta kontserbaziorako jarraibideak.

3. Informazioaren gizartearen zerbitzuen arloan, artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, Informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legeak, edo kasuan kasuko arau indardunek ezarritakoari begiratuko zaio; hori, halere, ez da eragozpen izan informazioaren arlorako erregelamendu bidez ezartzen diren gainerako baldintzak betetzeko.

4. Kontsumitzailearen defentsarako Nafarroako Gobernuaren organoek defentsa hori bermatuko dute eta informazioarako eskubidea sustatuko dute, arestian adierazitako moduan, eta begiratuko dute ezen Nafarroako lurraldean ezarritako zerbitzu-emateak emandako informazio-gizartearen zerbitzuek kontsumitzaileen defentsarako eman diren xedapen guztiek betetzen dituztela.

5. Erregelamendu bidez berariaz araututa ez dauden kasuetan izan ezik, fabrikazioaren sekretua ezin izan da erabili informatzeko betebeharra ez betetzeko.

Artikulu berria. Kexa eta erreklamazioetarako liburu bat edukitzeko betebeharra, eta haiek trami-tatu eta erantzutekoa ere.

1. Nafarroan ondasunak merkaturatu edo zerbitzuak ematen dituzten establezimendu edo zentro guztietan, kexa eta erreklamazioetarako liburu bat jarri beharko da kontsumitzaileen eskura, behar bezala zenbakitua eta Nafarroako administrazioak zigitatua, bai eta hura badagoela iragartzen duten kartelak ere, erregelamenduz ezarritako moduan.

2. Idatziz aurkezten diren kexa eta erreklama-zio guztiei administrazio eskudunek eta aurreko artikuluko 1. idatz-zatian jasotako subjektu erantzuleek erantzun beharko diete, interesdunei zuzendutako idazki arrazoituaren bitartez.

Artikulu berria. Tarteak komunikabideetan.

Nafarroako Gobernua titularra deneko hedabi-deek tarteak eta publizitatezkoak ez diren progra-mak eginen dituzte kontsumitzaileei informazioa emateko. Tarte eta programa horietan, edukiaren eta xedearen arabera, kontsumitzaileen erakunde-ek eta elkarteek izanen dute sarbidea eta partai-detza, bai eta ondasunak eta zerbitzuak ematen dituzten sektore publiko eta pribatuek ere?

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

37. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat, 15. bis, gehitzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun artikulua:

“15. bis artikulua. Informazioaren gutxieneko edukia.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskura jarri-tako produktuek eta zerbitzuek etiketatzeko, aur-kezteko eta argitaratzeko erregelamenduetan fin-katuta dauden eskakizunak bete behar dituzte, eta, halaber, gutxienez, informazio hau eman behar dute, ondasunaren edo zerbitzuaren izaera-ren arabera eta indarrean dagoen legeriari jarrai-tuz:

a) Produktuen jatorria, izaera, osaera eta xedea.

b) Produktuek dauzkaten gehigarriak, horrela-korik badute.

c) Produktuen kalitatea, kantitatea, kategoria eta, halakorik badute, ohiko izena edo merkatarit-zako izena.

d) Prezio osoa edo aurrekontua, hala behar denean, ea produktua eskuratzeko edo erabiltzeko baldintza juridikoak edo ekonomikoak; argi eta garbi eta bereizirik adierazi behar dira produktua-ren edo zerbitzuaren prezioa eta, halakorik egon bada, gehikuntzen edo beherapenen zenbatekoa, baita zerbitzuengatik, osagarriengatik, finantziatio-agatik, ordainketa geroratzeagatik edo antzeko arazoiren batengatik egon daitezkeen kostu gehi-garriak ere.

e) Produktua edo hornidura egin den eguna, produktua erabiltzeko kontsumitzeko gomendatzen den epea, edo iraungitze-data.

f) Produktua era egokian erabiltzeko edo kontsumitzeko jarraibideak edo argibideak, ohartaraz-penak eta aurreikusten diren arriskuak?”

Zioak: Kontsumitzaileak ezagutu beharreko gutxieneko batzuk ezartzea.

38. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, 15. ter, gehitzeko zuzenketa.

“Hauxe da proposatzen dugun artikulua:

15. ter artikulua. Informazioaren arloko jarduke-ta administratiboak.

Botere publikoek honako jarduketa hauek buru-tuko dituzte:

a) Kontsumitzaileentzako informazioaren zabalpena bultzatzea, eta haien elkarteekin eta enpresa-erakundeekin eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialarekin informazio kanpainetan aktiboki parte hartzeko formulak hitzartzea.

b) Komunikabideetan kontsumoko gaiak zabal-tzeko saioak sustatzea.

c) Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteekin, enpresa-erakundeekin eta merkataritza-ganberek lankidetzan, kalitatearen bereizgarriak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko produktu-entzat, ondasunentzat eta zerbitzuentzat.

d) Kontsumitzaileei merkatuan aurkitutako pro-dukto arriskutsuei buruzko informazioa ematea, erregelamenduz ezarritako moduan?”

Zioak: Kontsumitzaileei informazio hobea ema-nen zaiela bermatzen duen atala osatzea.

16. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

39. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluko, Kontsumitzaileei argibideak emateko bulegoak, 1. idatz-zatiari beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“..nahiz kontsumitzaile elkarteen menpekoak. Halaber, Nafarroako Gobernuak Nafarroako lurralde osoan laguntza bermatzeko adina bulego publiko egonen direla bermatuko du”

Zioak: Erabiltzaileen elkarteen bulegoekin dauzkan akordioak gorabehera, gobernuak behar adinako sare publikoa bermatuko du, lurralde osoan banatua.

40. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Azpitarraturiko testu hau gehitzea proposatzen dugu:

2. Kontsumitzaileei argibideak emateko bulegoek ezin izanen dute produktu edo zerbitzuen inolako publizitaterik, berariazkorik nahiz ezkutukorik, egin.

Zioak: Proposatutako testua zehaztea eta osatzea.

41. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluari beste idatz-zati bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“4. Koordinatzeko lan horren barruan, kontsumoko informazio eta laguntza zentroen informatikako sarea eratuko da. Sari horri atxiki ahal izango zaizkio hala bulego publikoak nola pribatuak. Nafarroako Gobernuaren kontsumoko gaietan eskumena duen organoak bere menpean edukiko du sarea, eta harek kudeatuko du. Sare horrek bidea emango du informazioa arin bidaltzeko, ara-

zoak non gertatzen diren berehala jakiteko eta jarduera zehatzak planifikatzeko”

Zioak: Proposatutako testua hobetu eta osatzea.

17. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

42. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

17. artikuluko, Kontsumitzaileei argibideak emateko bulegoen eginkizunak, 1. lerrokada aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Kontsumitzailearentzako informazio bulegoetako –publikoak nahiz itunduak izan– oinarritzko eginkizuna da eskatzen duen herritar orori informazio doakoa ematea”

Zioak: Erabiltzaile gisa eskubide horretaz baliatu ahal izatea administrazioak bermatu beharrekoa da, betiere oinarritzko zerbitzu publikoen modu berean, hau da, modu unibertsal eta doakoan.

43. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

17. bis artikulua gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“17. bis. Administrazio publikoek kontsumitzaileen eta erabiltzaileen informaziorako bulegoekin dituzten betebeharrak.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen informaziorako bulegoek beren zeregina behar bezala bete ahal izateko, erakunde publikoek honako datu hauek eman behar dizkiete, gutxienez, kontsumoko gaietan eskumenak dituen departamentuaren bidez:

a) Produktuen, zerbitzuen, jardueren eta zereginen erregistroari eta baimenari buruzko aipamena.

b) Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako edota ingurumenerako arrisku larria izan daitekeelako, etenaldian, kenduta edo debekatuta dauden produktuen, zerbitzuen, jardueren eta zereginen zerrenda.

c) Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubi-deen esparruan arau-hauste larriak edo oso larriak egiteagatik jarri diren zehapen irmoen zerren-

da, zehatutako pertsonak edo erakundeak berariz aipatuta eta zehapena jartzeko arrazoia emanda, zehapen osagarri gisa zehapena argitara ematea erabaki den kasuetan, lege honen 43.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

d) Kontsumo edo erabilera arrunt, ohiko eta orokorreko produktuek, zerbitzuek, jarduerak eta funtzioek dituzten baldintza eta prezioei buruzko arauen zerrenda”

Zioak: Proposaturiko testua hobetu eta osatzea.

44. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, 17. ter, gehitzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun artikulua:

“17. ter artikulua. Kontsumoko gaietan Europar dagoen informaziorako sarbidea izatea.

Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei Europar Batasunaren barruan transakzioak egitean laguntza eta orientabidea emateko, Nafarroako gobernuak kontsumoko gaietan Europako informaziorako sarbidea izatea bermatuko du. Ido horretan, Europar kontsumoaren esparruan egiten diren proiektuetan eta dauden erakundeetan parte hartuko du, eta eguneratuta izango du beti Europako erakundearen araudiari, jarduerari eta proiektuei buruzko informazioa, baita Europako beste estatu eta eskualde batzuen jarduerari eta proiektuei buruzko informazioa ere.”

Zioak: Europako kontsumoaren arloko informazioa eskuratzen laguntzea.

18. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

45. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua aldatzeko zuzenketa. 18. artikulua-ren ordean honako testu hau jartzea proposatzen da:

“18. artikulua. Hezkuntzarako eta prestakuntzarako eskubidea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoak arduratuko dira herritarrek kontsumo

arloko informazioa eta hezkuntza jaso ahal izan dezaten, kontsumitzaile diren aldetik dituzten eskubideak eta horiek arduraz baliatzeko modua ezagutu dezaten, pertsonaren prestakuntza integralari lagungarri baitzaizkio.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, kontsumo arloko hezkuntza eskubide hori eragingarri egiteko xedez, neurriak hartuko ditu ondokoak lortzeko:

a) Organo eskudunekin beharrezkoa den lankidetzaz ezartzea, kontsumitzailearen hezkuntza curriculum arruntan sartzeko, derrigorrezko hezkuntzaren ziklo eta maila guztietan.

b) Irakasleen kontsumo arloko prestakuntza etengabea bermatzea, hezkuntza arloko erakunde eskudunekin lankidetzan.

c) Kontsumitzaileentzako informazio eta orientazio lanak egiten dituzten langileen kontsumo arloko prestakuntza etengabea bermatzea.

d) Kontsumitzaileentzako hezkuntzan eta prestakuntzan laguntzeko materiale didaktikoak prestatu eta argitaratzea.

3. Kontsumitzailearen hezkuntza ondokoetara bideratuko da: baliabideen erabilera arrazoizkora makurtzea kontsumo-ereduen egokitzapena, gehiegizko zorpetzeari aurrea hartzea, kontsumoko produktuak erosi, erabili, gozatu eta deuseztatzea banakako erabaketan ekologia-balioak aintzat hartzea eta ingurumena zaindu eta garapena lortzean kontsumitzailea ere arduratzea eta parte hartzea.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

19. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

46. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua aldatzeko zuzenketa. 19. artikulua-ren ordean honako testu hau jartzea proposatzen da:

“19. artikulua. Hedabideetako prestakuntza.

Nafarroako Gobernua titularra deneko hedabideek, beren programazioetan, publizitatezkoak ez diren tartek eskainiko dituzte kontsumitzaileen hezkuntzarako eta prestakuntzarako, erregelamendu bidez ezartzen den moduan; horretarako,

kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeen edo elkarteetan lanaz baliatu ahal da.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

47. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

19. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“..prestakuntza sustatuko dute..” dioten lekuan “..prestakuntzari bidea emanen diote..” esan behar du.

Zioak: Administrazioaren betebeharrari buruzko erredakzio inperatiboagoa erabiltzea.

**20. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

48. ZUZENKETA

**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

20. artikuluari, Eskubide horien erabilera, beste idatz-zati bat, hirugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“3. Halaber, foru eta toki administrazioek kontsumitzaileen elkarte hauek mintzakide gisa hartuko dituzte bitariko harremanetan.”

Zioak: Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluaren funtzionamenduaz gainera, administrazioek erakundeekiko bitako harremana landu behar dute, eguneroko arazoei konponbidea egokiagoa emateko.

**22. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

49. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

22. artikulua ondoko testua kentzeko zuzenketa.

“..eta bereziki, uko eginen diote kreditazioen, analisisen emaitzen edo behar adina egiaztaturiko kalitate-kontrolen bidez bermatuta ez dauden informazioak zabaltzeari.”

Zioak: Nork erabakiko du kontsumitzaileen elkarte batek zabaltzen duen informazioa behar bezala kontrastaturik dagoen? Zehapena ezar diezaiotkeen administrazio berak? Testuak auto-zentsura egitea bidera dezake. Gainera, kontsumitzaileen elkarteetan jarduketei ezartzen zaizkien mugak argi eta garbi zehazturik daude 24. artikuluan, hain zuzen ere e) letran.

50. ZUZENKETA

**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

22. artikulua, Kontsumitzaileen elkarteetan funtzionamendua, aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“Kontsumitzaileen elkarteek... ahal zaizkien onustearen eta arduraren printzipioei jarraituz egiten dituzte beren jarduerak, bai eta beren estatu-tuetan zehazturiko helburuei jarraituz ere”

Zioak: Kontsumitzaileen elkarteetan helburuekiko eta funtzionamenduarekiko irizpide objektiboak eta errespetuzkoak ezarri behar dira. Ezin da administrazioaren zentsura subjektiboa onartu.

**24. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

51. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

24. artikuluko 1. idatz-zatiko f) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nork erabakiko du kontsumitzaileen elkarte batek zabaltzen duen informazioa behar bezala kontrastaturik dagoen? Zehapena ezar diezaiotkeen administrazio berak? Testuak auto-zentsura egitea bidera dezake. Gainera, kontsumitzaileen elkarteetan jarduketei ezartzen zaizkien mugak argi eta garbi zehazturik daude 24. artikuluan, hain zuzen ere e) letran.

52. ZUZENKETA

**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

24. artikuluko, Kontsumitzaileen elkarteetara legezko onurak kentzeko arrazoiak, 1. idatz-zatiko

f) letra aldatzeko zuzenketa. Haren testua hauxe litzateke:

“Sortu zireneko helburuak eta funtzioak ez betetzea.”

Zioak: Testua murrizgarria da eta borondatez elkartzeko izan diren xede edo helburuei buruzko zentsura egiten du.

25. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

53. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

25. artikuluko 2. idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa.

“aginduzko txostenak eginen ditu” hitzen ondolik hauxe gehitzea proposatzen da:

“..., betiere arauak onetsi aurretik...”

Zioak: Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluak aginduzko txostenak egin behar ditu kontsumoaren arloko araei buruz, baina arau horiek onetsi aurretik egin beharko ditu.

54. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

25. artikuluari beste idatz-zati bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“4. Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluak urtero kontsumoaren arloko jarduera, politika orokorra eta, hala badagokio, Nafarroako Foru Komunitateko herri-administrazioei zuzendutako iradokizunak bilduko dituen txostena egingo du.”

Zioak: Kontsumoaren arloan jarraipena eta ebaluazioa bideratzea.

26. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

55. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, hogeita seigarrena bis, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Artikulu berria. Kalteak konpontzea.

Kontsumitzaileek eta erabiltzaileek eskubidea dute ondasun eta zerbitzuen kontsumoan gertaturiko kalte eta galerak direla-eta kalte-ordaina eman dakien, salbu eta kaltea bere errua ez beste inorena edo erantzukizun zibila duten pertsonena bada.

Kontsumitzaileen defentsarako organoek kontsumitzaileei kalteak ordaintzea eta konpontzea erraztuko eta sustatuko duten neurriak hartuko dituzte, horien barne direla gatazkei konponbidea emateko borondatezko prozedurak”

Zioak: Ondasun eta zerbitzuen kontsumoak sorturiko kalte eta galerengatik erreklamazioa aurkeztea erraztuko duen aurreikuspena ezartzea.

56. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

VI. kapitulua gehitzeko zuzenketa. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak.

Hau da proposatzen den testua:

“VI. kapitulua. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak.

26. bis artikulua. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak.

Kontsumitzaileek eta erabiltzaileek eskubidea dute ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko, lege honetako 15. artikuluan jasotako terminoetan.

26. ter artikulua. Entitate publikoak.

1. Entitate publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute. Hori guztia honela egiten da:

a) Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-eremuko establezimenduetan, errotuluak, oharrak

eta, oro har, jendeari zuzendutako jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz emanen dira.

b) Kontsumitzaile eta erabiltzaileek betetzeko egiten diren inprimaki edo eredu ofizialak bi hizkuntzatan emanen dira.

c) Kontsumitzaileak edo erabiltzaileak berak hizkuntza ofizialetako bakarra erabiltzea nahi duela adierazi ezean, bi hizkuntzatan idatziko dira atxikipen-kontratuak, klausula-ereduak dituzten kontratuak, araupeko kontratuak, baldintza orokorrak eta kontratu horiei buruzko edo horiek egitearen ondoriozko agiriak.

d) Zehazki kontsumitzaileei zuzendutako jakinarazpenak bi hizkuntzatan eman beharko dira, eta baita fakturak, aurrekontuak eta antzeko agiriak ere, kontsumitzaile eta erabiltzaileak berak bi hizkuntza ofizialetako bat bakarrik erabiltzea aukeratu ezean.

e) Bi hizkuntzatan idatziko dira, halaber, produktu eta zerbitzuak erabili eta mantentzeko jarraitbideen liburuxkak, berme-agiriak eta etiketetan eta ontzietan adierazi beharrekoak.

f) Kontsumitzaile eta erabiltzaileei zuzendutako produktu, ondasun eta zerbitzuen eskaintza, sustapena eta publizitatea, erabilitako euskarria edozein dela ere, bi hizkuntzatan eginen da.

2. Erakunde publikoekin dituzten harremanetan, kontsumitzaile eta erabiltzaileek arreta eurak hautatzen duten hizkuntza ofizialean jasotzeko eskubidea dute; horrenbestez, Nafarroako Gobernuak egoki ikusten dituen neurriak hartuko ditu eta eskubide hori erabiltzen dela arian-arian bermatzeko beharrezko bitartekoak jarriko dira eskura.”

Zioak: Kontsumitzaileek eta erabiltzaileek gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko duten eskubideak bermatzea.

57. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, 26. quater, gehitzeko zuzenketa.

“26. quater artikulua. Sustapen-jarduketa publikoa.

1. Nafarroako Gobernuak kontsumitzaile eta erabiltzaileei ondasun eta zerbitzuak eskaintzen dizkieten erakundeen jarduketan eremuan euskara erabil dadin sustatzeko egoki ikusten dituen neurriak sustatu eta beharrezko bitartekoak jarriko ditu eskura.

2. Nafarroako Gobernuak arlo honetan euskara erabiltzea errazagoa egiten duten hizkera espezializatuko materialak zabaltzea sustatuko du.”

Zioak: Euskararen sostengua eta sustapena bermatzea.

27. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

58. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

27.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“27.3 artikulua. Ikuskapen jarduketak kontsumitzaileei eskaintzen zaizkien edo eskaintzekoak zaizkien ondasun eta zerbitzu guztien gainean egiten dira, eta ahal dela erabilera edo kontsumoko ohiko, arrunteko eta orokorreko ondasun, produktu eta zerbitzuen gainean.”

Zioak: Kontsumo ikuskatzailetzaren jarduketa berez zabaltasun handikoa da; hori dela eta, ez du ematen beharrezkoa denik makineria bezalako lehengaietara zabaltzea; aldiz, merkatuan eskurgai dauden ondasun eta zerbitzuetara mugatu behar da. Gainera, makineria segurtasun industrialaren eta laneko segurtasunaren arloko kontrolaren pean dago.

29. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

59. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“..egin ahal izanen da...” dioen lekuan “..egingo da...” esan behar du.

Zioak: Badirudi argi dagoela Nafarroako Gobernuaren Kontsumo Ikuskatzailetzak ikuskapen jarduera egin behar duela.

35. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

60. ZUZENKETA

ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu berria, 35. bis artikulua, Salaketen iza-pidetzea, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“35. bis. Erabiltzaileek edo kontsumitzaileek kontsumitzaile nahiz erabiltzaile gisa izan duten esperientziari buruzko salaketak edo kexak aurkeztu ahalko dituzte bulego publiko edo itunduetan. Bulego horiek aztertzeo aurkeztu diren kexa edo salaketak aztertuko dituzte, eta arrazoizko epe batean emanen diete erantzuna; bestalde, etorkizuneko jarraibideei buruzko orientabideak emanen dituzte”

Zioak: Ezin da ulertu kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzko lege batean berariaz ez jasotzea eta arautzea kexen tramitazioa eta jarraitu beharreko prozedura.

37. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

61. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

37. artikulua aldatzeko zuzenketa. Kontsumo arloko arbitrajea.

Testua honela geldituko litzateke:

“37. artikulua. Kontsumo arloko arbitrajea.

1. Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, lege indardunek Kontsumo Arbitraje Sistema sustatzeko, kudeatzeko eta garatzeko esleitzen dizkien eginkizunak baliatuko dituzte, eta horretarako behar diren bitarteko materialak eta giza bitartekoak esleituko dizkiote sistema horri.

2. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuari kontsulta egin ondoren, behar diren prozedurak ezarriko ditu arbitrajea zabaltze aldera kontsumo arloko gatazketan konponbidea arintzeko bitarteko gisa.

3. Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, bultzatuko dute beren menpeko entitate edo enpresa publikoek eta zerbitzu publikoak eta interes orokorrekoak kudeatzen

dituzten entitate edo enpresa pribatuak Kontsumo Arbitraje Sistemari atxiki dakizkion”

Zioak: Testua hobetzea.

39. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

62. ZUZENKETA

ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

39. artikuluko, Arau-hausteen tipifikazioa, m) letra aldatzeko zuzenketa. Hauxe litzateke testua:

“m) Abusuzko klausulak edo argiak ez diren klausulak erabiltzea”

Zioak: Abusuzko klausulez gainera, arazo handia da argiak ez diren klausulak sartzea, kontsumitzailea nahasteko edo engainatzeko erabiltzen direnak.

42. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

63. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

42. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. 42. bis artikulua berri bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“42. bis artikulua. Isunen tartearak.

a) Zehapenaren graduazioaren ondorioetara, betiere haren larritasunaren arabera, hura bi tartetan zatituko da: behekoa eta goikoa, biak zabalera berekoak. Hori oinarri harturik, inguruabarren arabera, honako arauak aplikatuko dira:

1.a Egintzan inguruabar aringarri bat bakarria izan baldin bada, beheko tarte aplikatuko da. Inguruabar bat baino gehiago izan baldin bada, beheko tarte horretako gutxieneko kopurua; kasu oso berezietan, larritasun maila baxuagoko hurrengo zehapen-esparruaren arabera zehapena ezarri ahalko da.

2.a Egintzan inguruabar astungarri bat bakarria izan baldin bada, goiko tarte aplikatuko da. Inguruabar bat baino gehiago edo inguruabar oso kualifikatu bat izan badira, goiko tarte horretako gehiengo kopurua aplikatu ahalko da.

3.a Inguruabar aringarri nahiz astungarririk izan ez bada, zehapena ezarri behar duen organoak, arau-haustearen gainerako inguruabarrak kontuan hartuta, zehapena beheko tartearen arabera ezarriko da.

4.a Inguruabar aringarriak eta astungarriak batera gertatzen badira, zehapena ezarri behar duen organoak batera baloratuko ditu, eta arau-hausteak larritasunaren arabera duen sailkapeneko gutxienetik gehienera bitarte ezarri ahalko du zehapena.

b) Kasuan kasu jarri beharreko isuna zehazteko, legez ezarritako gutxienekotik jaitsi gabe ere, arau-hauslearen egoera ekonomikoa hartu ahalko da kontuan”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

45. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

64. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

45. artikuluko, Arau-hausteen preskripzioa, 1. idatz-zatiko a), b) eta c) letrak aldatzeko zuzenketa. Hona testuak:

“a) Arau-hauste oso larriak, bost urteren buruan.

b) Arau-hauste larriak, hiru urteren buruan.

c) Arau-hauste arinak, bi urteren buruan”

Zioak: Legearen epeak txikiegiak direla jotzen dugu.

46. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

65. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

46. artikuluko, Zehapenen preskripzioa, 1. idatz-zatiko a), b) eta c) letrak aldatzeko zuzenketa. Hona testuak:

“a) Arau-hauste oso larriengatik zehapenak, bost urteren buruan.

b) Arau-hauste larriengatik zehapenak, hiru urteren buruan.

c) Arau-hauste arinengatik zehapenak, bi urteren buruan”

Zioak: Legearen epeak txikiegiak direla jotzen dugu.

66. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

46. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. 46. bis artikulua berri bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“46. bis artikulua. Zehapenak barkatzea.

1. Zehapen irmoak barkatu ahalko dira, organo eskudunak nahierara hartutako erabakiaren bitartez, ondoko inguruabarren bat gertatzen denean:

a) Arau-hausleak arau-haustearekin kalteturiko kontsumitzailea asebeste duenean.

b) Arau-haustea egin duen enpresa kontsumoaren arloko gatazkei epaitegitik kanpoko konponbidea emateko oro har ezarrita dauden arbitraje prozeduretan ari denean.

c) Zehaturiko arau-haustean berrerortzea antzeman ez denean.

d) Legez kanpoko onurarik lortu ez denean, salbu eta artikulua honetako 2. idatz-zatian xedatutakoan.

e) Arau-haustea egin duen enpresa beste akzionista, jabe edo kudeatzaile baten menpe egotera iragan denean arau-haustea gertatu ondoren, edo lehiaketa prozedura batean ari denean, edo zehapena bere terminoetan betetzea berdintasunaren aurkako edo interes orokorren, arau-hausteak ukitutakoen edo hirugarrenen kaltegarri gertatzea eragiten duten beste inguruabar batzuk badaudenean.

2. Barkatzeak eragina izan dezake isunetan –zenbatekoren hiru laurdenetara bitarte– eta gainerako zehapenetan –zati batean nahiz guztiz– salbu eta legez kanpoko onuraren konfiskazioaren kasuan, zeina gauzatu beharko baita adostutako barkatzeak eragina izan dezan.

3. Prozedura zehatuaren eskariz abiatuko da. Kasuko eskaria organo eskudunari zuzenduko zaio, zehapena irmo bihurtzen denetik hiru hileko epean ebatz dezan. Aipatu irmotasuna baino lehenago aurkeztu ahalko da, baldin eta, aldi berean, zehapenaren aurkako errekurtsioak ez jartzeko borondatea adierazten bada. Eskaria egin eta hiru

hil iragan badira ebazpen espresurik eman gabe, ezetsi dela ulertu ahalko da.

4. Prozedura honen tramitazioak zehapenaren preskripzio epeak etenen ditu.

5. Barkatzearen onuradunak beste arau-hauste larri edo oso larri batzuk egiten baditu edo kontsumitzaileei eragindako kalteak efektiboki ordaintzen ez baditu, barkatzea, interesdunari entzunaldia eman ondoren, atzera bota beharko da, hura eman eta hurrengo hiru urteetan.

Atzera botatzeak berekin ekarriko du zehapena guztiz exekutatzea, eta iragan den epea ez da zenbatetsiko zehapenaren preskripzioaren ondorioetarako. Hala eta guztiz ere, barkatu zen zehapenari dagokion arau-haustea kontuan hartuko da etorkizuneko arau-hausteetan, haiei dagokien zehapena zehazteko”.

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

XEDAPEN GEHIGARRIEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

67. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako lehendabizikoaren, Foru legearen garapena eta aplikazioa, 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen luke:

“2. Foru lege honek indarra hartu eta sei hileko epean...”

Zioak: Epea gehiegizkoa da, gobernuak arazo larri honi ekin behar baitio.

68. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarriari gehiketa egiteko zuzenketa.

Lehen xedapen gehigarriari bi idatz-zati gehitzea proposatzen da. Hona testua:

“3. Gobernu kontseiluari dagokio diru-zehapenetan ezarritako zenbatekoak aldizka berrikustea eta gaurkotzea; horretarako, kontsumorako prezioen indizearen aldaketak hartuko dira kontuan.

4. Kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko eskumenez baliatzea bateragarria eta osagarria

izanen da zerbitzu publikoen edo interes orokorreko zerbitzuen erabiltzaileak babesteko estatu nahiz erkidego mailan ezarritako ordenamenduan ezarritakoarekin”.

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

ZUZENKETA OROKORRA

69. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Legearen testu guztian aldaketa orokor bat egiteko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Kontsumitzaile eta erabiltzaileak” dioen lekuan “persona kontsumitzaile eta erabiltzaileak” esan behar du.

Zioak: Testu guztian, ez da generoaren aldagaia kontuan hartu; horrenbestez, gure ustez, kontsumitzaile eta erabiltzaile aipamenen ordeztu persona kontsumitzaile eta erabiltzaile aipamenak jarri behar dira.

TITULUARI

AURKEZTURIKO ZUZENKETA

70. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lege proiektuaren izenburua aldatzeko zuzenketa. Izenburua ordeztu eta testu hau jartzea proposatzen da:

“Nafarroako kontsumitzaile eta erabiltzaileen estatutuari buruzko foru lege proiektua”

Zioak: Estatutu terminoa asko erabiltzen ari da garai honetan, eta administratuek babestuta dauzkaten eskubideekin eta betebeharrekin identifikatzen da.

**IDAZPURUEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

71. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

II. titulua aldatzeko zuzenketa. II. titulua ordeztu eta honako hau proposatzen da:

“II. TITULUA. Kontsumitzaileen eskubideak”

Zioak: Egokiagoa da lehentasunezko babes egoerak definitzearen ikuspuntutik.

72. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

II. kapitulua aldatzeko zuzenketa. II. kapituluaren izenburuaren ordezkari honako hau proposatzen da:

“II. kapitulua. Interes ekonomiko eta sozialak babesturik izateko eskubidea”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

73. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

III. kapitulua aldatzeko zuzenketa. III. kapituluaren izenburuaren ordezkari honako hau proposatzen da:

“III. kapitulua. Informazioa jasotzeko eskubidea”

Zioak: Proiektuaren testua hobetu egiten du.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

74. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko 2. idatz-zatiko zortzigarren lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Europarentzat konstituzio bat eratzten duen Ituna, zioen azalpenean aipatzen dena, ez da indarra duen testu juridiko bat, eta ez du ematen etorkizunean ere izanen denik.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	